


Bilboko emakume
Bilboko emakume
gazte feministen
gazte feministen
maitasun bizipen
maitasun bizipen
eta diskurtsoak
eta diskurtsoak

Soziologiako Gradua

Ikasturtea 2018-2019



Egilea: **Irene Ruiz Corpas**

Zuzendaria: **Matxalen Legarreta Iza**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak 2018an abian jarri zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia eta Zientzia Politikoko graduetako ikasleen lana eta ahalegina sustatzeko ekimen bat, ikasketa horiek ematen diren zentro bakarra baita. Bi jakintza-arloetako gradu amaierako lan onenaren saria da.

TFG onenaren II. saria Irene Ruiz Corpas-ek egin du, «Bilboko emakume gazte feministen maitasun bizipen en eta diskurtsoak» izenburupean. Lan bikaina da, eta gaurkotasun handiko gaia jorratzen du, hala nola Bilboko emakume feminista gazteen testuinguruan afektibitate- eta maitasun-harremanak hartzen dituzten forma eta eredu berriak, nahiz eta beste ingurune batzuetara estrapolatu daitekeen. Ekarpen zientifikoa eta soziala ere garrantzitsua da, eta ikerketa kritiko eta gogoetatsuaren helburura hurbiltzen da.

Azkenik, erabilitako lexikoaren kalitatea, estiloa eta aberastasuna ere azpimarratu behar ditugu. Ikuspegi biografikoa aukeratu izanak freskotasun nabarmena ematen dio testuari, eta horrek testua irakurtzea errazten eta bultzatzen du. Espero dut hartaz gozatzea.

José A. Oleaga
AVSP-ESZPE-aren lehendakaria

La Asociación Vasca de Sociología y Ciencia Política AVSP puso en marcha en 2018 una iniciativa encaminada a fomentar la dedicación y el esfuerzo del alumnado de los grados de Sociología y Ciencia Política de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, único centro en el que se imparten estos estudios. Se trata de un premio al mejor trabajo fin de grado en ambas disciplinas.

El II Premio al mejor TFG ha recaído en el elaborado por Irene Ruiz Corpas y titulado «Bilboko emakume gazte feministen maitasun bizipen eta diskurtsoak», brillante trabajo que aborda un tema de rabiosa actualidad, como son las nuevas formas y modelos que adoptan las relaciones afectivas y amorosas, en el contexto de las jóvenes mujeres feministas de Bilbao, aunque extrapolable a otras latitudes. La aportación científica y social es también relevante, destacando su acercamiento al objeto de investigación crítico y reflexivo.

Finalmente, también debemos destacar la calidad, el estilo y la riqueza del léxico empleado. El haber optado por un enfoque biográfico dota de una evidente frescura al texto, lo que facilita y anima a su lectura. Espero que disfrute de ella.

José A. Oleaga
Presidente de la AVSP-ESZPE

Ikerketa honek, feminismitik sortzen diren maitasun proposamen berriek emakume feminista gazteen diskurtso eta esperientzietan nola eragiten duten aztertu du. Horretarako, Bilboko auzoetako emakume gazteen talde feministetako lau kideekin elkarlanean lau narratiba kokatu behar dira. Feminismoaren atzerkian eta Narratiben Ekoizpenen metodologia erabiliz, maitasun hegemonikoa zalantzan jarri eta harreman kontrahegemonikoen eraikuntza prozesuen zailtasunak, biziak eta estrategiak azaltzen dira.

Hitz gakoak: maitasuna, feminismoa, kontrahegemonia, zaintza.

Esta investigación analiza la forma en la que las nuevas propuestas sobre el amor articuladas desde el feminismo influyen en los discursos y experiencias de las mujeres jóvenes feministas. Para ello, se han tejido cuatro narrativas contextualizadas con cuatro participantes de los grupos feministas de mujeres jóvenes de diferentes barrios de Bilbao. Bajo el paraguas del feminismo y haciendo uso de la metodología de las Producciones Narrativas, se pondrá en entredicho el amor hegemónico, mostrando las dificultades, vivencias y estrategias que se configuran en el proceso de construcción de relaciones contrahegemónicas.

Palabras clave: amor, feminismo, contrahegemonía, cuidados.

Aurkibidea

1. Sarrera	8
1.1. Ikerketaren helburuak	9
2. Marko teorikoa	11
2.1. Mendebaldeko maitasun hegemonikoa.	11
2.1.1. Kultura emozional generikoa	12
2.1.2. Maitasun erromantikoa	14
2.2. Mendebaldeko maitasun forma kontrahegemonikoak.	17
2.2.1. Harreman ez monogamikoak	18
3. Metodologia	21
3.1. Diseinu teknikoa	22
3.2. Narratiben Ekoizpen prozesua	25
4. Maitasunaren inguruko narratibak	28
4.1. Idoia: urrundutako zaintzailea	28
4.2. Olatz: pelikulera txiki independentea	37
4.3. Julene: porrot askatzaileen aldekoa.	45
4.4. Amaia: lotura solidarioak ipar.	52
5. Analisia	60
5.1. Maitasunaren definizioa	60
5.2. Maitasun esperientziak.	64

5.3. Kontrahegemoniatik maitasuna (des)eraikitzen	66
5.4. Maitasun idealak ere mito	70
5.5. Maitasuna eta feminismoa artikulatzen	72
6. Ondorioak	75
6.1. Ikerketaren mugak eta galdera berriak	78
Bibliografia	80
Eranskinak	83
Diseinu teknikorako gidoia	83

1

Sarrera

Ikerketa honen bitartez, feminismitik sortzen diren maitasun proposamen berriek emakume gazteengan nola eragiten duten aztertu nahi da, zehazki, Bilboko auzo desberdinetako emakume gazteen kasuan. Alde horretatik, maitasuna du aztergai ikerketak eta genero desberdintasunetan jartzen du arreta.

Ikerketa prozesua dinamikoa izanik, etengabeko joan-etorriak izan ditu. Galdera desberdinak sortu zaizkit prozesuan zehar eta galdera horien jakinminetik, erantzunetatik edo erantzun ezetatik eta frustrazioetatik ikerketak eremu batera edo bestera eraman nau. Hasieran, adibidez, ikerketa jabekuntza prozesuen norabidean kokatzen zen espresuki, feminismitik sortzen ziren maitasun forma berriak emakume gazteen jabekuntza prozesuetan eragiten zuten aztertzea baitzen helburua. Ikerketak hartu zuen ibilbidea ikusita, aldiz, helburuz aldatu behar izan nuen eta momentura arte jorratutakora moldatu nuen ikerlana.

Jabekuntza prozesuak alde batera utzita ere, ikerketaren planteamenduarekin bat nentorren eta horri eutsi nion maitasuna ikuspuntu emantzipatzaile batetik zeharka aztertzeke aukera oraindik zabalik zegoelako. Hortaz, maitasuna emakumeen dominaziorako eta explotaziorako erraminta izatetik harago, indar askatzaile bezala ikerketan azaltzea garrantzitsua iruditzen zait; batik bat, maitasuna landu izan denean, maitasun erromantikoaren eraginak aztertzeke helburuarekin izan delako edo eredu hegemoniko hori kritikatzearren. Aurrekoekin alderatuz hain hedatuak ez dauden arren, badaude maitasun kontrahe-

gemonikoen diskurtsoetan eta praktiketan oinarritzen diren ikerketak. Horiei ekarpena egiteko asmoarekin ardaizten da, hain zuzen, ikerketa hau.

Maitasun kontrahegemonikoen hedapen falta hori ez da soilik arlo akademikora mugatzen, mugimendu feministan ere aurki daitekeela iruditzen zait. Feminismoak emakume eta gizonen arteko harremanak agerian uzteaz gain eta maitasun kontrahegemonikoen eraikuntzan paper garrantzitsua izan badu ere, ikerketako protagonistek narratibetan ez dute maitasun eredu feminista finkorik antzeman. Bestalde, maitasuna ez da talde feministetan gehiegi jorratu den gaia izan eta jakinda norbanakoon egunerokotasuna zuzenean zeharkatzen duela, bere toki publikoa aitortzeko beharra ikusi dut.

Hala, generoaren problematikarekin harreman zuzena duen fenomeno den heinean, ikuspegi generiko batetik heltzen zaio ikerketan. Femenismoaren aterkipean, emakumeengandik eta emakumeentzako ezagutzen bitartez ardaiztu nahi izan dut ikerketa eta, horretarako, Bilboko auzo desberdinetako lau emakume feministekin elkarlanean lau narratiba ehundu ditut.

Maitasuna istorioa izanik (Sternberg, 1998), narratiben bitartez kontatzeko aukera ematen du. Narratibek fenomeno baten aurrean norbanakoek duten kokapenaren berri ematen digute, pertsonalak dira eta bakoitzak bere ikuspuntutik eraikitzen ditu. Narratiben Ekoizpenaren prozesua lau zatitan banatu dut ikerketa honetan: lehenengo atalean, elkarrizketa gauzatu dut. Bigarrenean, elkarrizketan jasotako ideiak eta hausnarketak testu «hibrido» batean jaso ditut. Hirugarren fasean, narratiben protagonistei lehen borradorea bidali diet, moldatzeko aukera luzatuz, haien onarpena jaso arte. Azkenengo atalean, protagonistekin narratiben erabilera publikoa izango dela finkatu dut. Ildo horretatik, narratibak ikerketan zehar jorrotutako bestelako literatura bezala, analisirako eta ondorioetarako puntu teorikotzat hartu ditut.

1.1. Ikerketaren helburuak

Ikerketa aurrera eramateko, hurrengo helburu orokorrean oinarritu naiz:

- Feminismotik sortzen diren maitasun forma berriak emakume gazteengan nola eragiten duten aztertzea.

Helburu orokor hori lortzeko, helburu espezifikoak beharrezkoak dira, horien bitartez lehenengotik hurbilago kokatuko bainaiz:

- Emakume gazte feministen maitasun bizipenak ezagutzea.
- Maitasun kontrahegemonikoen diskurto, praktika eta tentsioak aztertzea.
- Emakume gazte feministen maitasun eredu ideala zein den ezagutzea.
- Maitasunaren eta feminismoaren arteko harremanean sakontzea.

2

Marko teorikoa

2.1. Mendebaldeko maitasun hegemonikoa

Maitasunaren inguruko kontzeptualizazio saiakerak anitzak izateaz gain, ikuspuntu desberdinetatik jorratu dira. Maitasuna kontzientziaren eremua dela azaldu du Helen Fisherrek (2004), norberak bere gain hartzeko duen gaitasunaz harago doan indar ulergaitza dena. Zentzu honetan, maitasuna zerbait irrazional eta abstraktua da, norbanakoaren kontroletik at gelditzen dena. Badaude maitasunari analisi estrukturalago batetik heltzen diotenak ere; odena sozial konplexu eta zehatz baten barruan gauzatzen diren explotazio eta dominazio harremanetatik abiaturik, maitasunaren inguruko tesi ezberdinak plazaratu dituztenak. Horiek dira marko teorikoan zehar aipatuko ditudanak.

Edozein dela maitasunaren inguruan sortzen den definizioa, Mari Luz Estebani (2011) jarraiki hainbat dira maitasuna definitzerako orduan kontuan hartu beharreko dimentsioak: ideologikoa, kognitiboa, sinbolikoa, morala, erlazionala, korporala, testuingurua soziohistorikoa... Gauzak horrela eta azterketa sistemiko baten beharraz, atal honetan maitasuna egungo mendebaldeko molde hegemonikoan kokatuko dut.

Mendebaldeko maitasun eredu hegemonikoa aztertzeko baliagarria da Gramscik *Kartzelako Kuadernoetan* (1929-1935) hegemoniaren gainean egiten duen teorizazioa. Mouffek (1985) egiten duen autorearen irakurketan, hegemonia «zuzendaritza politiko, intelektual

eta morala» da. Hegemonia hori ideologiaren eremuan eskuratzen da, bertan aurkitzen baitira uneoroko borrokan interes kontrajarrien araberako bi printzipio hegemoniko. Hegemonia honen bidez, klase menderatzaileak bere interesen gainean ezartzen du mundu ulerkera jakin bat.

Mundu ulerkera horrek harreman zuzena dauka gizarte kapitalistarekin, kapitalismoa ulerturik explotazio, dominazio eta alienazio harremanak barnebiltzen dituen ordena sozial artikulatu eta konplexu konkretu bezala (Arruzza, 2016). Kapitalismoak bultzatzen dituen botere eta explotazio harreman horien barruan kokatzen du Arruzzak genero problematika, sistema kapitalista eta patriarkala bateratuz. Bateratasun hori, ordea, ezin da mailakatu, kapitalismoa eta genero zapakuntza artikulatu nahi ditu errealitate soziala bere osotasunean aztertzeko. Horretarako, genero sistemak bere logika propioak jarraitzen dituela baieztatzen du, betiere logika horiek kapital metaketara bideratzen direla. Hortaz, kapitalismoaren oinarrian aurkitzen diren zenbait printzipio: indibidualismoarena, jabetza pribatuarena, lehiakortasunarena eta kontsumismoarena, batik bat, botere harreman generikoen atzean ere ezkututzen dira.

Explotazio eta dominazio harreman generikoa egikaritzeko, birsortzeko, eraldatzeko edo mantentzeko, kapitalismoak erakunde zehatzen beharra du eta horien artean ikerketa honetarako funtsezkoak direnak, familiarena eta ezkontzarenak dira. Bi instituzio horien egungo forma zehatzetan emozioak gailendu dira. Emozioen instituzionalizazio horrek lotura du modernizazioan gauzatzen den paradigma aldaketarekin (Esteban, 2011).

2.1.1. Kultura emozional generikoa

Modernizazioarekin batera, mendebaldeko gizarte kapitalistetan emozioek aurrea hartu diote arrazionaltasunari. Pentsamendu aldaketa horren ondorioz, maitasunak ere zentralitatea eskuratu du gurean, maitasuna sentimenduen esparruan egikaritzen baita. Emozioak partikularitasun kulturaleri erantzuten dieten koordenatu kulturalak dira (Esteban, 2011) eta ordena sozial zehatz baten arabera ardatzen diren heinean, soziokulturalki eraikitzen dira, espezializazio generikoan oinarriturik (Herrera, 2010).

Genero zapalkuntzak, beraz, emozioetan eragin zuzena izanik, harremanen nolakotasuna baldintzatzen du. Dominazio eta explotazio maskulinoaren arabera eraikitzen dira emakumeen eta gizonen arteko sentimenduak eta harremanak, kultura emozional generiko bi sortuz. Genero identitate asimetrikoetatik abiatzen diren heinean, kultura emozional generikoei emakumeen zapalkuntza eta dependentzia egoera baino ez dute indartzen (Herrera, 2010). Zentzu horretan, emakumeak norbanako osatugabe, pribatu eta dependente bezala ageri dira, gizon osatu, unibertsal eta burujabeen aurrean. Identitateen eraketa dikotomiko horrek gizonen eta emakumeen artean sortzen den harreman hierarkizatua agerian uzten du.

Hainbat dira maitasunaren eta emakumeen arteko harremana jorratu duten autoreak. Ikuspegi marxista batetik, Aleksandra Kollontaik (1926/1975), adibidez, emakumea harreman sexual eta afektiboen bidez sozialki definitzen dela dio eta horrek emakumearen dependentzia moral, material eta sentimentalera eragiten du, emakumea esklabu egoerara mugatuz. Esklabutza horrek maitasunaren izenean emakumea bere burua ukatzera daramala gehitzen du Simone de Bouvoirrek (1949).

Emozioen disposizio generikoez ere mintzo dira 60ko-70eko hamarkadetako feminista erradikalak. Intimitatearen, afektuen eta emozioen garrantzia azaleratuz, maitasuna patriarkatu modernoaren funtsezko oinarria dela argudiatu zuten (Castrillo, 2016). Era berean, Clara Coriak (2011) emakumeen emozioen espezializazioak identitate generikoei harremanetan dauden espazioen banaketan sorburu duela baieztatzen du.

Horrenbestez, esan daiteke, maitasunak norbanakoen sozializazio eta generizazioan eragina duela, nahiz eta esanahi eta garrantzia aldetik baldintzapen desberdinak izan sexu batentzat edo bestearentzat. Hala, maitasuna emakumeen bizitzan aspektu zentral gisa azaltzen da, maitasuna identitate edo subjektibitate femeninoaren parte bihurtuz (Esteban, 2011).

Alde horretatik, maitasunaren azterketa ideologia patriarkalaren barruan kokatu beharra dago, maitasun eredu hegemonikoak bi sexuen arteko kokapen sozial asimetrikotik edaten baitu, emakumeen dominazio egoerari eutsiz. Patriarkala den heinean, heterosexuala da, maskulinitate eta feminitate hegemoniko binarioan oinarrituz, maitasuna

gaitasun erreproduktiboak dituen bikotean ardazten delako (Esteban, 2011). Testuinguru horretan, Kollontaik (1926/1975) aipatzen duen bezala maitasuna kapitalismoaren parte ere bada, aurrerago azalduko dugun bezala, jabetza pribatua eta indibidualismoa oinarri gisa aldarrikatzen dituen unetik.

Argi dago beraz, botereak maitasuna zeharkatzen duela, harreman sozialak ulertzeko eta antolatzeko ideologia kultural hegemoniko oso bat duelako atzetik (Esteban, 2011). Bestalde, ezin ahaztu, maitasunak badituela unibertsaltzat jotzen diren zenbait dimentsio: intimitatearena, pasioarena eta konpromisoarena (Herrera, 2010). Dimentsio horiek aurretik azaldutako maitasun kulturarekin artikulatzen dira, mendebaldean gailentzen den maitasun eredu hegemonikoaren azterketari heltzeko.

2.1.2. *Maitasun erromantikoa*

Maitasun erromantikoa, hortaz, mendebaldeko maitasun eredu hegemonikotzat hartzen da, maitasun forma zehatz horrek ezartzen baititu bi sexuen artean ezartzen diren harreman afektibo-sexualen «zuzendaritza politiko, intelektual eta morala» (Mouffe, 1985). Emakumearen zapalkuntza bultzatzeaz gain, maitasun erromantikoa sistema kapitalistaren printzipioetan ere oinarritzen da: jabetza pribatuan, indibidualismoan, kontsumismoan eta lehiakortasunean, besteak beste, ordena soziala sortze eta birsortze aldera.

Maitasun erromantikoa modernitatean errotu zen klase ertaineko emakumeen artean, inongo itxaropen pertsonalik gabe, ezkontza mitifikatzen hasi zirenean (Herrera, 2010). Maitasun eredu honetan, Erromantizismoaren influentzia argia da; Erromantizismoak norbanakoaren maitasun ideal erotikoak moldatzen dituelako bikote harremanak idealizatu arte. Mitifikazio horrek unibertsaltzat hartu den «utopia emozional kolektiboa» eraiki du, horren inguruan mendebaldetik sortu diren produktu kulturei esker: Hollywood, maitasun literatura... ideologia horren sustatzaileak izan baitira (Herrera, 2010).

Gauzak horrela, feminista erradikalek maitasun erromantikoa produktu historiko eta kultural gisa definitzen dute, monogamoa eta heterosexuala den ezkontzaren instituzioarekin harremanetan dagoena,

eta beraz, emakumearen zapalkuntzan zutabe garrantzitsuenetarikoa dena (Castrillo, 2016). Coral Herrerak (2010) maitasun erromantikoa gizarte kapitalista, demokratikoa eta patriarkalaren ordena sozialerako erramintatzat hartzen du, emakumeen zapalkuntzaren mantenturako funtzio zehatza duena. Era berean, maitasun erromantikoak dimentsio mitikoa duela gaineratzen du, mito desberdinen bidez idealizatzen baita. Alde horretatik, Yela García (2000) Erdi Arotik hona egungo harreman afektibo-sexualetan mantendu diren zenbait mito identifikatzen ditu.

— *Laranja erdiaren mitoa:*

Mito honen arabera, existentzia bi generotan zatitzen da eta soilik bikotekide idealarekin elkartzen direnean, lortzen dute osotasun absolutu bat sortzea. Norbanakoen indibidualizazioaren eta bakardadearen aurrean, *laranja erdiaren mitoa* galdutako kolektibotasunaren aterabide modura azaltzen da (Yela García, 2000).

— *Printzipe urdinaren eta printzesaren mitoa*

Coral Herreraren (2010) proposamena den arren, ezinbestekotzat jotzen dut Yela García (2000) proposatzen dituenekin harremanetan jartzea. Aurreko mitoaren zatiketa generikoari jarraiki, rol sexual eta estereotipo generikoen banaketan oinarritzen da. Femitate eta maskulinitate patriarkalaren eredu horiek *printzipe urdinaren* eta *printzesaren* irudia eraikitzen dute. Lehenengoa iruditegi femeninoaren araberakoa da eta gizona babesle, aktibo, ausart eta goxo moduan proiektatzen du. Emakumea, ordea, «bestearen nahietara» bideraturiko *printzesa* zintzoa, jasankorra eta pasiboa da, maitasunez beterik dagoena (Herrera, 2010).

— *Omnipotentziaren mitoa*

Omnipotentziaren mitoak maitasunak duen potentzialitatea azpimarratzen du. Maitasuna edozerren gainetik dagoen indar modura azaltzen da, edozerren gainetik gailentzen dena. Hortaz, maitasuna egungo egoerari irtenbide bezala edo poztasunaren iturri gisa agertzen da batez ere (Yela García, 2000).

— *Ezkontzaren edo bizikidetzaren mitoa*

Mito honek bikotea ezkontzaren norabidean kokatzen du. Egungo pasioaren eta maitasunaren instituzionalizazioarekin dauka lotura, bada, maitasun erromantiko-pasionalaren aitza-

kiapean, bikotea unitate bezala egonkortzea du helburu (Yela García, 2000).

— *Iraunkortasunaren mitoa*

Bikotean maitasun pasionalak betiko irauten duela baieztatzen du; hau da, hasierako alderdi erromantiko eta pasionala harremanean mantentzen dela eta mantendu behar dela azaltzen du. Alde horretatik, maitasunaren eta ezkontzaren arteko zubi lana ere egiten du (Yela García, 2000).

— *Monogamiaren mitoa*

Zenbait autorek maitasun erromantikoaren oinarrietan monogamia funtsezko elementutzat hartzen duten heinean, Yela Garcia-ren (2000) mitoen sailkapenean txertatu dut. Monogamiak harremanak mailakatzen dituen sistema da eta hierarkia horretan, bikote heterosexual binarioak beste loturen gainetik kokatzen dira. Bi sexuen arteko harremantzeko ereduak finkatzen baditu ere, emakumeei zorroztasun handiagorekin ezartzen zaie monogamia, patriarkatuaren moral bikoitzaren isla dena (Herrera, 2010; Vasallo, 2018).

— *Esklusibotasunaren mitoa*

Esklusibotasun sexualaren mitoa pertsona batengandik bakarrik senti daitekeenaren sinesmena da (Yela García, 2000). Jabetza pribatuan eta norberekoikerian ardazten da autorearen ustez. Era berean, Kollontaik (1926/1976) esklusibotasun hori fisikoa izateaz gain, morala ere badela adierazten du. Vasallok (2018), bere aldetik, «benekotasun marka» batetik datorrela gaineratzen du, esklusibotasun sexualaren bidez harreman batek zilegitasuna eskuratzen baitu beste batzuen aurrean. Zentzu horretan monogamia mantentzeko baliagarria dela ondorioztatzen dute hiru autoreek.

— *Fideltasunaren mitoa*

Desira pasionalak, erromantikoak eta erotikoak bikotekidearen bitartez soilik asetu daitezkeenaren ustea da (Yela Garcia, 2000). Vasallorengatik (2018) fideltasuna monogamiaren iruditegiaren barruan kokatzen den mekanismoa da baita ere. Esklusibotasun sexualetik abiatuak, erralitate desegonkorren aurrean mitoa segurtasunaren markoan kokatzen da.

— *Heterosexualitatearen mitoa*

Ikerketa honetan modu sakon batean heterosexualitatea landuko ez dudan arren, garrantzitsua iruditzen zait maitasun erromanti-

koaren mitoen baitan sartzea, maitasun erromantikoa bera ezin baita bere osotasunean ulertu *heterosexualitatearen mitorik* gabe. Alde horretatik, Vasallok (2018) dio heterosexualitateak monogamiarekin bat egiten duela identitate generikoa sortzerako orduan. Maskulinitatearen eta feminitatearen eraikuntza hegemoniko binarioan ardazturik, bikotekidea ugalketarako muin zilegi bezala azaltzen du beste harreman moten aurrean.

2.2. Mendebaldeko maitasun forma kontrahegemonikoak

Mendebaldean gailentzen den maitasun eredu hegemonikoaren nondik norakoak azalduta, bigarren parte honetan, mendebaldetik jorratu diren maitasun forma kontrahegemonikoei erreparatuko diet, harreman ez monogamikoei.

Gramscik *Kartzelako Kuadernoetan* (1929-1935) hegemoniaren kontzeptua ideologiaren esparruan kokatu zuen, hegemonia eskuratzeko aldera, unero borrokan dauden bi printzipio hegemonikoen agertoki bezala (Gramsci, 1975; hemen aipatua: Mouffe, 1985). Zenbait autorek maitasuna ideologiaren eremuan kokatu duten heinean (Esteban, 2011; Herrera, 2010), maitasuna bi printzipio hegemonikoen borroka alorra dela ere ondoriozta daiteke. Zentzu honetan, maitasun erromantikoa inposatzen duen mudu ikuskera desartikulatzeko eta eraldatzeko helburuarekin agertzen dira maitasun forma kontrahegemonikoak. Maitasunari, beraz, bere dimentsio askatzailetik helduko diot atal honetan.

Maitasunaren potentzialitate emantzipatzailearen inguruko ekarpenak XVIII. mendetik hona jaso dira, Mary Wollstonecraftek *Vindicación por los derechos de la mujer* (1792) lanean maitasun askearen aldarrikapena berdintasunetik egin zuenetik (Wollstonecraft, 1792; hemen aipatua: Esteban, 2010). Aleksandra Kollontaik (1926/1975), esaterako, maitasunaren kontzeptualizazio berri baten beharra ikusi zuen SESBeko prozesu iraultzailearen markoan. Jabetza pribatutik harago, elkartasunean, askatasunean eta berdintasunean oinarritzen da proposatzen duen «adiskidetasun maitasuna». Simone de Beauvoirrek (1949/) ere bere partetik, «benetako maitasunaren» proposamena egin zuen, zeinetan bi kideen askatasuna ez ezik, bestearen mugak eta gabeziak onartzen dira, maitasuna norbera ezagutzeko iturria izanik.

2.2.1. *Harreman ez monogamikoak*

Orain arte landutako ekarpenak testuinguru soziohistoriko desberdinetatik abiatzen dira eta ez dute haien oinarrian momentu koiuntural ekonomiko, sozial eta politiko orokortu bat partekatzen. Ahatik, azken hamarkadetan garatu diren harremantzeko modu ez monogamoen pizgarria iraultza sexuala da (Freire, 2013).

Iraultza sexuala 68ko maiatzeko iraultza kulturalarekin hasi bazen ere, borroka femenistetatik eta homosexualen borroketatik egikaritu zen gehienbat. Era berean, penizilinari eta pilula antikonzeptiboek esker, iraultza sexualaren oinarrian aurkitzen ziren bi helburuak lortu ziren: batetik, sexualitatearen eta ugalkortasunaren arteko bereizketarena, eta bestetik, askapen sexuala (Rivera Garreta, 2005). Horrek aldaketa nabarmenak ekarri zituen gorputzen eta sexualitatearen askapenean, sexuen arteko harreman sexual, afektibo eta sentimentaletan eragina izango zuena. Oro har, mugimendu kontrakulturaletatik eta zehazki feminismitik harreman ez monogamoen gaineko hausnarketari ekin zitzaion (Freire, 2013).

Diskurtso eta praktika kontrahegemoniko horien jomuga monogamia da, monogamia pentsamendu eta botere egitura izanik, harremanen nolakotasuna definitzen duelako. Zentzu horretan, monogamiak hierarkikoki mailakatzen diren harreman estatus desberdinak esleitzen ditu (bikotekidearena, esaterako), aurretiaz ehun sozialean existitzen diren dominazio eta explotazio harremanekin artikulaturik (Wuwei, 2018; Vasallo, 2018).

Pentsamendu monogamoa osotasun batetik deseraikitzea ezinbesteko baldintza den momentutik, maitasun forma kontrahegemonikoak harreman ez monogamikoen barruan kokatu ditut (Vasallo, 2018). Harreman ez monogamo horiek anitzak dira bai diskurtsiboki, zein praktikoki, eta horregatik, polimaitasunaren eta sare afektiboen proposamenera mugatuko naiz hurrengo paragrafoetan.

— *Polimaitasuna*

Polimaitasuna harreman ez monogamikoen modalitate bat da eta pertsona bat baino gehiagorekin harreman intimo eta sexuala edukitzean datza, harreman horietan parte hartzen dutenen eza-gutzarekin (Anapol, 1997; hemen aipatua: Cerdeira, 2012). Ire-

kia da, harreman polimaitale bakoitzaren arabera definitzen delako, baina baditu oinarri komun batzuk (Freire, 2013). Printzipioen artean, ezinbestekoak dira zintzotasunarena eta konpomi-soarena, polimaitasuna praktikan jarri baino lehenagoko baldintza bezala ulertzen baititu Klessek (2006).

Konfidantzaren, errespetuaren, babesaren, komunikazioaren eta negoziaketaren printzipio etikoetan ere ardatzen da (Anapol, 1997; hemen aipatua: Cerdeira, 2012). Izaera etiko batek abiatzen den heinean, sexualitatea baino, polimaitasunean lotura afektiboa gehiago azpimarratzen da, bere helburu nagusia emozioak eta esperientziak partekatzea baita. Era berean, polimaitaleek bestearen eksklusibotasuna ukatzen dute (Freire, 2013).

Nolanahi ere, polimaitasunaren proposamena problematizatu da esperientzia praktikoetatik abiaturik. Polimaitasunaren etika zintzoak harremanak era kuantitatibo eta simetriko batean neurtzen ditu, norberaren plazer sexualaren bila, besteak kontsumorako merkantzia bihurtuz (Wuwei, 2018). «Kapitalismo emozional» horrek generoaren eta bestelako dominazio eta explotazio harremanen papera neutralizatzen ditu, berdintasunaren eta justiziaren etiketapean (Vasallo, 2018).

— *Sare afektiboak*

Sare afektiboak harreman-esparrua birpentsatzeko abiapuntu irekiak dira. Lotura afektiboak prozesu motel eta ireki baten barruan kokatzeaz gain, polimaitasunean ez bezala, zaintzaren etika gailentzen da. Zaintza hori gizarte kapitalistak aldarrikatzen dituen harreman utilitaristen kontrakoa da, eta beraz, norbanakoaren beharrak testuinguru zehatz batzuen barruan kokatzen ditu (Vasallo, 2018).

Alde horretatik, norbanakoak sare baten kide ez ezik, horren erantzule ere badira. Sare afektiboetan defendatzen den zaintzaren ulerkerak kideen konpromiso politikoarekin du zerikusia, kolektiboaren garapen kultural eta emozionala ahalbidetzeko helburua baitu. Horretarako, ezinbestekoa da beste kideak ezagutzeaz gain, horiek onartzea; onarpenik gabe ez dagoelako existentzia komunik, eta beraz, sarerik (Vasallo, 2018). Onarpenarekin batera, elkarrekikotasunaren eta birbanaketaren dimentsioak ere identifikatzen ditu Estebanek (2011). Bere ustez, beharrez-

koak baitira maitasunaz eta intimitateaz harago, marko erlazional komunitarioak eraikitzea.

Berdintasunean, askatasunean eta elkartasunean ardazten diren maitasun kontrahegemonikoen forma kolektiboak mito bezala azaltzen dira; gizarte kapitalistak bultzatzen dituen explotazio eta dominazio harremanen barruan eginezinak baitira (Herrera, 2010). Zentzu honetan, maitasuna ezin da esparru autonomo bezala azaldu, maitasunaren eraikuntza berriak harreman sozioekonomikoen berrantolaketa bat eskatzen duelako komunismoaren (Kollontai, 1926/1975) edo anarkismoaren egituran (Herrera, 2010).

3

Metodologia

Aurreko puntuetan agertutako helburuak eta marko teorikoa kontuan hartuz, ikerketa epistemologia feministaren markoan kokatzeko hautua egin dut. Arlo akademikoan gailentzen den zientzia neutro, apolitiko eta objektiboaren aurrean, kritikotasunetik heldu nahi izan diot ikerketa honi. Hortaz, feminismoaren aterkipean, zientziaren izaera patriarkal eta androzentrikoari aurre egiteko xedearekin ardatzen da ikerketa. Alde horretatik, epistemologia feministari esker ikusezinak ziren errealitate eta espazioak mahaigaineratu dira eta haien konplexutasuna aitortzearekin batera, botere harremanen ulerkera zabaldu baita (Biglia, 2014). Feminitatea oinarritzat harturik, emakumeengandik eta emakumeentzako sortutako ezagutzek zentralitatea hartzen dute epistemologia feministan (Harding, 1998).

Maitasunarena genero zapalkuntzarekin harreman zuzena duen gaia izanik, genero ikuspuntutik jorratzen da ikerketan zehar. Horretarako, Narratiben Ekoizpenaren metodologian oinarritu naiz. Narratiben Ekoizpenak Donna Harawayen (1995) «ezagutza kokatuen» proposamenetik abiatzen dira. Zientzia hegemonikoaren objektibitateari kontrajarritz, Harawayk bestelako objektibitate feminista baten alde egin du, ezagutza kokatuen alde. Bere ustez, norbanakoaren kokapen sozialak edozein ezagutza baldintzatzen du, eta beraz, errealitatearen ezagutza partzial batera iristeko aukera eskaintzen du. Kokapen horren barruan biolentzia estrukturalaren eraginak pairatzen ditugu eta funtsean hori da errealitate bat edo beste ezagutzeko giltzarria. Horren aurrean, bakoitzaren partzialtasunarekin zintzoak eta kritikoak izan

behar dugula dio autoreak, ezagutzen ari garenean errealitatearen interpretazio bat ematen ari garela onartuz.

Zintzotasun eta kritikotasun horretatik planteatu nahi dut ikerketa honen metodologia eta prozesua. Bada, Hardingek (1998) dioen bezala, ikertzailearen klaseak, arrazak, generoak eta ezaugarri kulturelek eragina dute ikerketaren hasieratik bukaerara arte. Autorearen esanetan, hortaz, ikertzaile bezala norbanako historiko eta erreala naiz, desira eta interes zehatz eta pertsonalak dituena. Horien isla da planteamendu metodologiko honen aukeraketa, neutrala eta ausazkoa ez dena.

Narratiben Ekoizpenen metodologian oinarritzen naizen unetik, lehenengo mailako datu kualitatiboak erabiliko ditut. Narratibak fenomeno baten inguruan egiten diren ikuspuntu partzialak dira. Norbanakoen esperientzietan oinarrituz, fenomeno baten inguruan norbanakoen kokapenaren berri ematen digute, eta beraz, ezin dira era isolatu batean ulertu. Testuinguru kultural zehatz batetik ekoizten diren heinean, eragin batzuk jasotzen dituzte eta era desberdinetan interpreta daitezke (Pujol eta Marisela, 2013).

Maitasunarekin gauza bera gertatzen da. Sternbergen arabera (1998) maitasuna istorioa da eta bakoitzak berea sortzen du. Bikote harreman batean egonda ere, norbanako bakoitzak bikoteak partekatzen duen istorioaren inguruko bere ikuskera dauka, finean, errealitatearen ikuspuntu bat eta horren arabera sortzen du maitasunaren narratiba pertsonala. Edonon gaudela maitasun istorioak jasotzen ditugu: liburuetan, telesailetan, abestietan, lagunekin kafea hartzen... eta horrikin harremanetan, gurea eratzen goaz, Harawayen hitzetan (1995), norbanakoak duen fenomenoaren inguruko ezagutza ez delako inoiz bukatutzat ematen.

3.1. Diseinu teknikoa

Ikerketa honen helburu orokorra feminismotik sortzen diren maitasun proposamen berriek emakume gazte feministengan duten eragina aztertzea den momentutik, emakume feministekin batera lan egitea ezinbestekoa iruditu zait. Denbora eta giza-baliabideak direla medio,

ikerketaren lagina Bilbora mugatu dut, zehazki, Bilboko auzoetako emakume gazteen talde feministetako kideetara.

Narratibak bi subjektibitateen arteko artikulazioaren emaitzak dira, ikerlariaren eta parte-hartzailearen arteko harremanak ahalbidetzen baitu narratiba bera, biek kokapen zehatzetatik ekiten diotela (Grau, 2019). Narratibek, ikergai den fenomeno ulertzea dute helburu, eta hortaz, azterketa horretan giltzarri izan daitezkeen aldagaiak kontuan hartu behar dira laginaren erreferentziazko gune soziala osatzeko. Horretarako, lau aldagai desberdinu ditut: lehenengo biak, sexu-generoarena eta militantzia feministarena, funtsezko ardatzak dira, eta azkenengo biek, adinak eta egoera sentimentalak/bikote egoerak partaideen profilak ixteko balioko dute.

- *Sexu-generoa*: maitasuna norbanakoen sozializazio eta generizazio prozesuetan eragina duen baldintzatzailea da eta emakumeen bizitzan aspektu zentrala izanik, subjektibitate femeninoaren eraikuntzan funtzio garrantzitsua dauka (Esteban, 2011). Feminitatearekin eta genero ezberdintasunekin harreman zuzena duen heinean, epistemologia feministaren aterkipean, genero ikuspegia eta emakumeen presentzia ikerketan txertatzea ezinbestekoa da. Honela, Hardingi jarraiki (1998) ikerlanaren asmoa emakumeengandik eta emakumeentzako ezagutza ekoiztea ere bada.
- *Militantzia feminista*: mugimendu feministan militatzen duten emakumeak izatea ere garrantzitsua dela uste dut. Feminismoa teoria eta politika kritikorako apostua izanik, hausnarketarako eta eztabaidarako zenbait espazio ireki ditu, gehienbat emakumeen eta gizonen arteko harremanen hausnarketari dagokionean. Mugimendu feministak, beraz, paper protagonista izan du sexuen arteko harreman sexual, afektibo zein sentimentalen aldetan. Maitasunaren auziari ere heldu dio, eredu hegemonikoa kolokan jarritz eta alternatibetarako giltzak luzatuz. Alde horretatik, feminismoan militatu izanak maitasunaren beselako errealitate partziala ezagutzeko bideak ireki ditzake. Militante feministek atzetik hausnarketa lan bat eginga dutela ulertzen dut, genero problematikan sakontzeko gaitasuna ahalbidetzen duena. Era berean, San Valentin urtero ospatzen den eguna

izanda, talde feministen agendan egun markatua da, maitasunaren inguruko lanketa kolektibo minimo bat eskatzen duena eta hausnarketa lan horietan interesgarri suerta daitekeena.

- *Adina*: 18-29 urte bitartean kokatzen diren gazteak izan dira zentralitatea hartu dutenak ikerketan. Gaztetasunetik proiektatu dut ikerketa, batetik, bizitzan jasotako sozializazioa kolokan jartzeko unerik baldin badago, orokorrean, hori delako; eta bestetik, maitasun harremanekin lehen kontaktuak, izan afektiboak izan sexualak, adin horrekin hasten direlako. Hortik aurrera, maitasunak gazteen bizitzan presentzia irabazten du eta protagonista izatera ere hel daiteke.

Hala ere, maitasun harreman horiek denborarekin desberdin garatzen, bizitzen eta hausnartzen direnaren ustea daukat eta horregatik, adina bi tarteetan banatu dut: lehenengoan 18-23 urte bitartean kokatzen diren gazteak daude eta bigarreanean, berriz, 24-29 urte bitartekoak. Desberdintze horrek urteak igaro ahala, maitasun harremanetan esperientzia gehiago izatea eta prozesu desberdinak bizitzea dakar eta hori giltzarri izan daiteke maitasun harremanak eraikitzerako momentuan. Horrenbestez, narratiben heterogeneitatea bermatu dezakeelakoan nago.

- *Egoera sentimental/bikote egoera*: Bikotekidea izateak ikerketan kokapen eta ikuspuntu desberdinak gehi ditzakeela uste dut. Maitasun harremanen inguruko teoriak eta praktikak batera joan behar duten arren, batzuetan erritmo eta maila desberdinetan aurkitzen dira. Dimentsio praktikoarekin alderatuz, teorikoki errazagoa da maitasun harremanen hausnarketari heltzea, lehenengoan kontraesan handiagoekin egiten delako topo. Gauzak horrela, bikotedunak eta bikotegabeak desberdinu ditut. Bikoteez ari naizenean, ez naiz harreman itxietara soilik mugatzen; harreman irekiak bikote harreman bezala ere irudika daitezke, eta hortaz, parte hartzaileen autopertzepzioaren araberakoa izan da bikotedun edo bikotegabetzat haien burua hartzea.

Lau aldagai horiek abiapuntutzat hartuz, lau narratiba garatu dira. Aipatu bezala, Bilboko auzoetako emakume gazte feministen taldeetara mugatu dut lagina eta profil desberdinetan kokatzen diren lau partaideekin kontakzioa egiteko, ezagutzen nituen talde feministen kidee-

kin jarri nintzen kontaktuan, haien asanbladetan zuzenean ikerketaren nondik norakoak eta proposamena luzatzeko helburuarekin. Hasiera batean, talde desberdinetako lau emakume feministek prozesuan parte hartzeko prestutasuna agertu arren, horietako bi ez ziren bilatzen nuen profileria gehiegi moldatzen, eta beraz, moldatzen ziren horien bidez eskuratu nituen narratibak osatzeko behar nituen azken bi protagonistak, elur bolaren bitartez, alegia. Hauek dira narratiben protagonisten profilak:

- Idoia: emakume feminista, 26 urte, bikotegabea.
- Olatz: emakume feminista, 23 urte, bikoteduna.
- Julene: emakume feminista, 22 urte, bikotegabea.
- Amaia: emakume feminista, 26 urte, bikoteduna.

3.2. Narratiben Ekoizpen prozesua

Narratibei heldu baino lehen, hasierako kontaktu batean, lau emakumeei maitasunaren inguruan zuten ideiaren inguruko idazlana eskatu nien, orrialde batekoa. Horrek balio izan dit elkarrizketaren gidioa bideratzeko eta nire ikerketa helburuak hobeto definitzeko.

Narratiben Ekoizpenaren prozesua, dena den, lau zatitan banatu dela esan daiteke. Narratibak osatzeko, lehenengo saio batean lau partaideetako bakoitzak eta biok elkarrizketa bat burutu genuen. Elkarrizketak aldez aurretiko gidoi batekin abiatu nituen (ikusirik eranskinean), gidoi horrek ikerketa helburuei, marko teorikoko edukiei eta emakumeen lehen hausnarketan pentsatutakoari erantzuten dio; finean, ikergai den fenomenoaren inguruan aritu ginen. Saioak prestatzerako unean, espazioak garrantzia izan zuen. Elkarrizketa segurtasunezko eta konfiantzazko espazio batean gauzatzeko asmoarekin, talde feminista bakoitzak militatzen duen gune autogestionatuan egitea erabaki genuen. Horrela, apirilaren 12-14 egunen bitartean lehenengo bi elkarrizketak egin genituen eta apirilaren 27-28 egunen bitartean, azkenengo biak. Narratiben lehenengo zati honetan, gutxi gorabehera ordu bateko elkarrizketak grabatu nituen.

Behin elkarrizketak eginda, Balasch eta Montenegrok (2003) proposatzen duten testualizazioari ekin nion. Autoreen arabera, Narra-

tiben Ekoizpenen bigarren partean, aurreko saioen berrikuspen eta hausnarketa gauzatzen da, elkarrizketa bakoitzetik ateratzen den lehenengo borradoreari forma emanaz. Testu «hibrido» hori, parte hartzaile bakoitzari bidali nion bueltan, narratibaren moldaketetarako tartea zabalduz. Narratibaren hirugarren fase honetan, testuarekin identifikatuak eta eroso sentitu arte beharrezkotzat jotzen zituzten aldaketak egiteko aukera luzatu nien. Aldaketa horiek Google Drivean jasotzea erabaki genuen lau protagonistek eta bostok, aplikazio horrek edozein aldaketa egiteko aukera ematen baitu, gerora aldaketa guztiak gordez. Ideia hori, hala ere, emakume batek iradoki zuen eta boston artean hitz egin ondoren, Drive bidez egiteko hautua egin genuen. Era berean, Driveak narratiba moldatzeko epeak malguagoak izateko aukera eman zigun. Esan beharra dago, narratibetan anonimata mantentzen dela, eta hortaz, narratibetan agertzen den edozein izen asmatua dela.

Narratibaren Ekoizpenaren atal honetan Harawayk (1995) proposatzen duen ikerketa objektuaren agentzia ageri da. Lau protagonisten ezagutzak aitortzeaz gain, Narratibaren Ekoizpenaren bidez protagonista bakoitzak bere ekoizpen narratiboa moldatzeko aukera bermatzen da. Horrela, parte hartzailearen ikuspegiak zentralitatea hartzen du narratibaren zehar, bere onarpena jaso arte ez baita narratiba bukatutzat eman (Marisela eta Pujol, 2013). Dena den, agentzia horrek ez ditu guztiz ikerlariaren eta ikertuaren arteko harreman asimetrikoak ezabatzen. Ikerketa prozesua ikertzailearen eskuetan dagoen heinean, ikertzailea da bere interes eta desioen arabera, ikerketaren parte hartzaileei agentzia eta ahotsa ematen diena, eta beraz, ezin daiteke uka botere harreman horren existentzia (Pujol eta Marisela, 2013; Castañeda, 2019). Narratiba osatzeko, emakume feministei haien inguruko aurkezpen labur bat egitea planteatu nien haien burua maitasunaren fenomenoarekiko kokatzeko asmoarekin.

Halaber, narratibaren prozesuari amaiera emateko, narratibak eskuartearen genituela, parte hartzaileen eta nire artean testuaren erabilpenaz mintzo ginen azken momentu batean. Gure artean ekoizturiko narratiba izanik, bat egin genuen narratibaren erabilpen publikoa egitearekin; hau da, narratibak publikoak izateko aukera eta beharra ikusi genuen, hausnarketetatik, ezagutza feministei ekarpen modura ulertu izan ditugulako.

Ehundu ditugun narratibak ez dira material enpiriko moduan ulertzen. Maitasunaren inguruko ikuspuntu partzialak dira eta puntu teorikotzat hartu ditut (Pujol *et al.*, 2003). Horregatik, ekoiztutako lau narratibak ikerketan beste kapitulu bat bezala ageri dira eta ez eranskinen atalean.

4

Maitasunaren inguruko narratibak

4.1. Idoia: urrundutako zaintzailea

Idoia naiz, 26 urte ditut, Bilboko. Psikologia ikasi nuen, aukera guztiak zabalik edukitzeko, eta orain aukera guzti horiek zabalik jarraitzen dute, erabakitzeke. Zaintzailea betidanik, baina azkenengo aldian dena kanpora bideratu beharrean, nire buruari kasu egiten hasia naiz. Militantziaren eta laguntasunaren eskolak dira gehien maite ditudanak eta gehien irakatsi didatenak. Hortaz, horretan jarraitzeko intentzioa daukat.

DBH lehenengo mailan lehen harreman afektiboa eduki nuen mutil batekin. Momentu horretan laguneren artean izan nintzen lehenetarikoa; baina hortzetarako aparatua jarri zidatenean nire maitasun-espereziak pikutara joan ziren eta aparatua kendu arte ez nintzen inorekin berriz egon.

Orokorrean ez dut bikote harreman luzerik eduki. Askoz jota 6-8 hilabetetako harremanak izan dira eta beti mutilekin; dena den, horrek ez du esan nahi beste aukera batera zabalik ez nagoenik. Harreman horien iraupenak zaildu izan zituen nire harreman sexualak hasiera batean; bikote harremana zeukaten lagunek lehenengo harreman sexuala edukita, jarraitzen zutelako harreman sexualak mantentzen. Nire kasuan, nahiz eta pertsona batekin liatu, ez nuen lortzen harreman sexualik edukitzea, gure lehenengo harreman sexuala penetrazioa dela kontuan hartuz. Hala ere, nire lehenengo penetrazioa eduki baino

lehen, mila harreman sexual izan nituen pertsona desberdinekin, egoera desberdinetan eta momentu desberdinetan.

Azkenean, penetrazioa lortu nuenean, nire lagun minarekin izan zen. Aurretik harreman sexual desberdinak eduki izanak lagundu zuen neure burua birjentzat ez hartzera edo egoera horretan arrotza ez sentitzera. Dena den, mutilak pelikula bat zeukan atzetik eginda eta esperientzia korapilatu zen. Nirekiko egin zuena nahiko gogorra izan zen eta hasiera batean gure adiskidetasuna edozerren gaintik baze goen ere, berarekin haserretu nintzen gure harremanaz eta konfiantzaz gehiegi baliatzen zelako. Hori ikusita, mugak jarri nizkion eta ez nuen berataz ezer gehiago jakin nahi. Orduan horrela hastea nire bizitza sexual zein afektiboa niretzat *jartoa* izan zen.

Gerora desberdinagoak izan dira harremanak eta are ezberdinagoak izan dira Bilbon izan ditudanak eta Txilera joan nintzenean bertan garaturikoak. Bilbokoak nolabait ezagutzen nituen pertsonekin izan dira eta batik bat, egunerokotasuna (militantzia, lana, auzoa...) guztiz partekatzen ez dudan horiekin. Horregatik, eguneroko esparru horretatik irteten naizen bakoitzean, ezagutzen dut pertsonaren bat. Ligatu izan dudan lehenengo ia aldi guztiak festa giroan izan dira; zelan egon gare naren arabera eta kontuan hartuz topo egiten dugun ala ez, gehiagotan egon naiz pertsona horrekin. Txilekoak, ordea, harreman puntualagoak ziren: bat-bateko harreman sexualak gehienbat. Momentu horretan hori bilatzen nuen eta gustura egoten nintzen; baina Bilbon ez naiz gai hori egiteko. Behar dut era batean pertsona ezagutu, konfiantza maila bat eduki eta ezezaguna izan arren, gure artean beti egon behar da konexioren bat moduren batean, dena kontrolatua edukitzeko eta ni lasaiago egoteko. Alde horretatik, progresiboak izan dira hemengo harremanak: kointziditzen joan, elkar ezagutu...

Batzuekin denbora gehiago egon naizen arren, bikote bakarra eduki dudala esango nuke: Josu. 3-4 hilabete pasa genituen eremu berean kointziditzen genuela eta 'nire obarioengatik' berarekin hitz egingo nuela esan nion nire buruari. Liatu ginen eta adostu genuen bakoitzak bere partetik dena jarriko zuela berriz elkarrekin egoteko. Gauza da ez zela bere bizitzako momenturik onena eta hilabete batzuetara bukatu zen. Istorio hori behin baino gehiagotan gertatu zait: normalean ez daudelako edo bere momenturik onenean, edo bikotea

daukate nahiz eta harreman irekian egon... Ez dut inoiz eduki harremanik zeinetan besteek ez daukaten iragan korapilatsu bat edo egoera lasaia harremana hasteko. Zentzu horretan, nahiko gorabeheratsua izan da beti, inorekin inoiz txarrera bukatu ez dudan arren.

Halaber, azkenengo 4-5 urteetan hasi ditudan harreman guztiak irekiak izaten saiatu naiz. Ulertzen dudalako agian orain maitemintze fasean gaudela eta hasierako emozioengatik ez garela beste inorekin liatuko, baina badakit gutako batek beste norbaitekin egoteko gogoia edukiko duela gerora. Orduan hobe da hitz eginda egotea eta gertatutakoa kudeatzeko edo agian ez kudeatzeko jarrera hartzea, ekiditeko «adarren» eta desleialtasunaren diskurtsoa. Josurekin ezin nuen horrelako harremanik mantendu, bere segurtasun ezagatik edo dena delakoagatik, ez zelako gai pausu hori emateko. Edozelan ere, nik berarekin egon nahi nuen eta momentu horretan prest egongo nintzatekeen bikote harreman itxia edukitzeko, handik denbora batera beste gauza baten bila egonda ere.

Orain dela gutxira arte, harremanak bizi izan ditut bestearen esperoan, bestea babesteko, bestearen mesedetan, finean, bestearen ongi-zatea bermatzeko prespektibarekin. Ni izan naiz moldatu dena, egoera batzuk sortuz edo gauza batzuez paso eginez, harremana edo beste pertsona ondo egoteko helburuarekin. Gero bueltak ematen dizkiozu zure buruari eta esaten duzu: non nago ni, zer nahi dut nik... ez naiz normalean gelditzen horretaz pentsatzen. Jokatzeko era hori ez da soilik bikotekide harremanetara mugatzen, nire bizitzako beste harremanetan hartu dut zaintzailearen rola, bikotekide harremanetan nabariagoa izan bada ere. Ahizpa nagusia naiz eta nire gurasoak banandu zirenean atera zitzaidan zaintzaile izaera. Hala ere, aldatu nahi dudan gauza bat da eta uste dut aldatzen ari naizela.

Badakit bakarrik egoten baina ez dut nire burua zaintzen zentzu batzuetan: zaintza beti doa kanpora begira eta ez nire buruarekin. Hasieran nire pertsona anulatzen nuen edo genuen. Beharbada gehiegi esaten ari naiz, pertsona horiekin gustura eta pozik egon naizelako eta haiekin harremana oraindik mantentzen dudalako. Baina egia da, gero ikusten joan naizela zer ez dudan nahi eta horren arabera ere jokatu dudala, muga batzuk jarri baititut. Alde horretatik, ikasketa prozesu bat egon da nire aldetik. Orain zaintzailea naiz baina puntu batera arte,

nire pertsona ere kontuan hartzen dut eta besteek dituzten arazoekiko distantzia pixka bat hartzen ikasi dut. Horregatik oraingo harremanek antzinakoekin zerikusirik ez dutela esango nuke.

Era berean, iruditzen zait ligeekin eta bikotekideekin edukitako harremanak desberdinak direla. Lige horiekin edukitako harremana askoz sexualagoa izan da eta pasioarekin lotzen dut. Gustura sentitzen naiz eta aurretiazko konfiantza sortzen dut lige horiekin. Josuren kasuan, aldiz, bere pertsonak jakin-mina sorrarazten zidan, bera gehiago ezagutu nahi nuen, berarekin egoteko gogoia nuen, gauzak batera egitekoa... Utzi genuenean sentsazio arraroa izan nuen, pertsona horrekin mila esperientzia bizitzea gustatuko zitzaidakeelako. Hortaz, oso desberdina izan da sentitu dudana pertsona batekiko edo bestearekiko.

Ligeen zaintzari dagokionez, bestea orgasmora heltzea zen edo behintzat egon den zaintza horren isla dela esango nuke. Mutilak izanik, beti izan dute orgasmo bat gutxienez eta nik, aldiz, ez; eta gazteagoa nintzenean are gutxiago. Egia da pila bat disfrutatzen dudala egoeraz eta pertsonaz, baina harreman sexualetan dagoen falozentris-moa eta penetrazioa handia da, eta orokorrean, ez nintzen heltzen eta mutilek ez zuten ezta galdetu ere egiten. Nire plazerra nire ardura den arren, hori ikasteko denbora bat igaro da, ez nintzelako gai izaten eskatzeko zer nahi nuen edo zer behar nuen, egoerak ere ez zuelako laguntzen. Orain gai naiz nik eskatzeko edo orgasmoa bideratzeko.

Egia da ere, mutilek ulerkera desberdina dutela eta guztiek ez gaituztela bagina bezala soilik ikusten. Zure gorputzaz, zure pertsonaz, zure izateaz disfrutatzen dutenak gutxi dira eta hor ere ikasi dut zer nahi dudan eta zer ez; alegia, harreman sexualak nik ulertzen ditudan bezalako batekin edukitzearena.

Harreman mota desberdinak ere behar ditugunaren ustea dut, bakoitzak behar batzuk asetu behar dituelako. Edozelan ere, ezin dut harreman afektiboen eta sexualen arteko kategorizazio bat egin. Nire ustez, harreman sexualak oso garrantzitsuak dira bikote harreman batean eta orain, nire gatzetasunean, behar dut harreman sexual onak edukitzea. Momentu honetan biak behar ditut, bikote harremana izanik sexualki ere asetu behar naizelako.

Dena den, maitasuna ez dut soilik bikotekidearekin ulertzen, nire ustez, askoz harago doa. Konturatu naiz pertsona bat maitatzen hasten naizenean edo nire bizitzaren parte bihurtzen denean, pertsona horrek mindu ahal zaituenean edo mintzeko botere hori duenean gertatzen dela. Ideia hori ezkorra dirudien arren, pertsona batengan konfiantza jartzean, zuregan mina eragiteko boterea ematen ari zara. Harreman mota hori ez da bakarrik bikotekideen artean gauzatzen; familian, lagunartean... ere aurki daiteke. Nik zorrea izan dut bi kuadrilla on ditudalako eta maitasun horretan asko sakondu dugulako; antzeman daiteke urteen poderioz harremanak zelan zaindu ditugun, zelan hazi garen, besteari nola moldatu garen, zelan hausnartu dugun... Desberdinak izanik, maitasuna da batzen eta laguntzen gaituena bestearen egoera ulertzera inongo aurreiritzirik gabe.

Nire egunerokotasunean maite ditudan pertsonekin nagoen heinean, esango nuke maitasunak nire bizitzan toki garrantzitsua hartzen duela. Lehen, DBHn edo Batxilergoan ez zegoen ondo ikusia maitasuna azalaraztea, jakintzat ematen delako eta hori oker bat da. Denok behar dugu maitasuna eta denok behar dugu esan, denok behar dugu kontaktu fisikoa. Hala ere, nire ustez, hor prozesu bat dago: maitasunaren beste funtzioari buelta ematearena, maitasuna bera beste modu batera ulertzearena eta zeure burua zaintzearena. Horrek eramaten baikaitu maitasuna ere osotasun desberdinetik planteatzera: bikoteaz gain, bizitzako beste esparruetan ardatzen den horretara. Horren adibide dugu lanean egon beharko litzatekeen maitasuna, esaterako.

Maitasuna gauza positiboekin edo politekin lotzen dut, baina ez bere esanahi betegarrian. Maitasuna funtsezkoa den emozioa da eta daukan balioa aitortu beharra diogu, askotan ematen ez badiogu ere. Indarra da maitasuna eta diruak baino gehiago mugitzen duela iruditzen zait. Maitasuna harremanen oinarria izanik, erein eta zaindu behar da. Maitasunaren inguruko ideia hori, nire familiaren motxila baikorretik jaso dut batetik; familia ondo dagoenean baldintza gabeko maitasuna eskaintzen dizulako eta horren bidez konfiantza hartzen duzulako maitasun hori beste harremanetara luzatzerako orduan. Bestetik, urteetan zehar lagunekin partekatutakoogatik eta hitz egindakoogatik ere sortu dut ideia hori. Horri guztiari eduki dudan prozesua gehitzen badiogu.

Dena den, buruan neukan ideia hori denborarekin aldatuz joan da. Hasieran, uste nuen Disney pelikuletan eta pelikula *yankeetan* irudikatzen zen maitasuna horrela gauzatzen zela ere errealitatean. Gerora ikusi dut errealitatean ez dela horrelako egoerarik gertatzen eta nik ez nuela horrela izaterik nahi ezta ere: ez dut ilargia nahi, nahi dudana da zurekin partekatzea gure artean erabakitakoa eta guk nahi dugun puntura arte. Ez dut Disney printzesarik izan nahi, heldu nahi duen horretara heltzen den pertsona oso bat naiz. Prozesu horretan ere burbuilatik ateratzeko aukera izan behar duzu eta niretzat hori bigarren Batxilergoan izan zen: askatasun gehiago duzunean, familiarengandik urruntzen zarenean, lagun gehiago egiten dituzunean, unibertsitatera zoazenean... Psikologia ikasteak ere motxila asko, mundu desberdinak eta harremanak sortzeko bestelako formak ezagutzera eramán ninduen.

Gizartean, ordea, maitasuna maitasun erromantikoa edo bikotekide maitasun horretan dago zentratua. Maitatzearena onartua dago familia artean eta ez beti ikuspuntu osasuntsu batetik; badirudielako behartua zaudela senideren bat maitatzera, txarto eramanda ere. Familia izan arren, mugak daudela eta egon behar direla uste dut. Bestalde, lagunartean badirudi ez dela garrantzitsua maitasunaz hitz egitea, kideen artean dagoen horretaz.

Maitasuna gizartean diruarekin ere lotzen dela uste dut, bikote harremana «zaintza» gauza materialen bidez adierazi behar duzulako: San Valentinen eta horrelakoetan. Maitasuna gauza materialekin lotzen duzun momentutik, maitasunaren esentzia galtzen ari zara, kapitalismoaren barruan maitasuna bera materiala izatera pasatzen delarik. Horren adierazpen gorenak bikotekidearena edo familiarena da, bertan guztia kontsumoarekin baitoa lotuta. Halaber, badirudi gizarteak bultzatzen duen maitasuna sare sozialetara igotzen den maitasuna dela, poztasun eta osotasun faltsu batetik eraikitakoa.

Maitasunaren ideia horretan, *Yankeelandiak* eta Disneyk ere eragina dutela esango nuke: mutil baten esperoan dagoen printzesa lasaiak gara, sumisak, ondo jantzita doazenak, mutilak dena emango digunaren ideia dugunak... Horrelako estereotipoan sartzen ez bagara, Dulceida bezalako lesbianak daude; emakume bat gizon bihurtuko dituztenak eta eredu heterosexualari jarraituz, gizartearen aurka ageri daitezkeen harreman horiek ere gizarteak asimilatuko dituenak. Gizonei ere zer nola-

koak izan behar duten esaten diete: indartsuak, penetrazio fuertea egin behar dutenak, inizatiba daukatenak... Hau da, maitasunean bi sexuei esleitzen zaizkie rol desberdinak eta horrek ere presio bat suposatzen du gizonengan. Hala ere, presioa desberdina da haien posizio pribilegiatuaren aurrean gu garelako zapalduenak. Horrenbestez, gizonak eta emakumeak maitasunaren inguruan duten ideia desberdina dela esango nuke, puntu desberdinetatik bizitzen baitute maitasuna.

Alde horretatik, harremanak zalantzan jarri behar direnaren aldekoa naiz eta ez soilik harremantzeko formak, norekin bukatzen dugun eta norekin ez ere kolokan jarri behar dugu. Barneratuak ditugun mito asko deseraiki behar ditugu; *A Tres Metros Sobre el Cielo* pelikulako protagonistaren estereotipoa, esaterako, burutik kendu behar dugu inoiz figura hori gustatu behar zaigula esan digutelako. Jendea eza-gutu behar da eta fisikoak ez ezik, pertsonaren beste hainbat ezaugarri atentzioa deitu behar digute. Denborarekin aurrera eramaten den aldaketa bada ere, nire inguruan emakumeok prozesu hori era askoz sakonago eta eraginkorrago batean gauzatzen ari garela iruditzen zait. Hori positiboki baloratzen dudan arren, ezinbestekoa da ere mutilek prozesu hori martxan jartzea: zaindu behar dute, bestearen plazerra topatzen lagundu behar dute...

Praktikara eramanda, maitasun erromantikotik urruntzen diren harremanak izan ditudala esango nuke. Hemen Josurekin edukitako harremana azpimarratuko nuke. Exigentzia gabeko harremana izanik, bestearen espazioa errespetatzen genuen guztiz, bion espazioak eza-gutu genituen eta hitz egiterako momentuan pareko geunden. Bion arteko zaintza argia zen bai bestearekiko, bai harremanarekiko. Era berean, gau batean edukitako lige batzuk ere harreman osasuntsuetatik hurbilago kokatu dira.

Edozein dela harreman mota, garrantzitsua iruditzen zait pertsona bakoitzaren izaera kontuan hartzea, horien bitartez ulertzen baita harremana: zaintzarako prestutasuna, hitz egiteko formak, erosotasuna... Funtsezkoa da baita ezer ez jakintzat ematea; komunikazio berbal zein ez-berbalak, beraz, zentraltasun bat eduki behar du harremanean. Niretzat ezinbestekoa da konfiantza izatea beldurrik gabe edozertaz hitz egiteko aukera edukitzeko, horrek ahalbidetzen baitu momentuan nahi duguna edo ez duguna nahi adieraztea.

Horrez gain, zaintza emozional zein fisikoa behar dugu harreman horietan; ez soilik pertsonarekiko, harremanarekiko baita ere. Zaintza hori bikote bakoitzak definituko du, komunikatuko du, zaila bada ere lagunekin eta bikotekidearekin oreka mantentzea, harremana zaintzeak momentu desberdinetan denbora bat pasatzea esan nahi duelako. Horregatik, bakoitzaren espazioa errespetatzearekin batera, bikoteak ingurukoekin espazio partekatuak behar ditu, erreala izan dadin eta isolamendua ekidite aldera.

Orain arte ezaugarritutako harreman ereduaren adibiderik argiena laguneren artean daukadana dela iruditzen zait. Bikoteari dagokionean, baldintza batzuen barruan kokatuko nituzke harreman eredu alternatiboak, garrantzitsua baita zu ondo egotea zentzu guztietan. Oso psikologikoa badirudi ere, ongizate hori beharren piramidearen bidez azalduko dut. Maitasunaren puntura heltzeko, zure behar fisiologiko, fisiko eta beste asko asetuta izan behar dituzu. Hortaz, maitasunera heltzeko aurretiazko baldintza batzuk asetu behar dira, horrek laguntzen baitu maitasunean pentsatzea. Era berean, niretzat ezinbestekoa da nire inguruan konfiantzazko sare bat edukitzea hasi berri dudana harremanaren inguruan hitz egiteko, *feedbacka* jasotzeko eta nire iritzia sortzeko.

Gizartean, ordea, beste baldintza batzuk aurkitu beharko lirateke. Orokorrean, hezkuntza eredu guztiz desberdina izan beharko litzateke, hezkuntzaren bidez sozializatzen baikaituzte emakume eta gizon. Hortaz, txikitatik hezkuntza emozionalaren, afektiboaren eta sexualaren beharra ikusten dut, gaztetatik deseraikitze prozesua planteatzen bada, askoz errazagoa delako. Sexualitatearen beste ikuspuntu oso desberdina ere funtsezkoa da, kontaktu fisikoari beldurra galtzera eramango gaituena. Ez dakigu zer sentitzen dugun, zer nahi dugun, nondik datorkigun tristura sentimendua, zergatik... Hori sintomatikoa da eta gizarteak sortzen du. Ahaztu barik, heteronormatibitatearekin amaitzea funtsezko baldintza izan beharko litzatekeela baita ere.

Sistemak erabilezin bihurtzen gaituen heinean, modu indibidual batean ekin behar zaio hausnarketari. Zortea baldin badaukazu deseraikitze prozesua errazagoa suerta dakizuke inguru dezente batean bazaude eta hala eta guztiz ere, zaila da; gizarteak *hippie* edo *feminazi*

bezala irudikatzen baitzaitu horrelako harremanik garatzen duzun momentuan. Kontuan hartzekoa da ere, arautik ateratzen diren harremanak gutxi barru sistema barruan sartuko dituztela Dulceida eta horrelako ereduaren bidez. Finean, horien atzean ezkututzen dena sistemaren oinarriak direlako.

Hausnarketa indibidual horretik ekinda, bakoitzak bere maitasun ideala eraikitzen du bere berezitasunekin. Izan ere, nik nahi dudan hori ez du zertan beste batek eduki nahi duen hori izan, eta hortaz, ez ginateke ideal bakar batez hitz egiten egongo. Niri pertsonalki, gaur egun bikote harreman bat edukitzea gustatuko litzaidake; bakarrik egoten dakidan arren, ikusi nahiko nuke ea gai naizen beste norbaitekin egoteko edo ez, zelan nagoen ni egoera horietan... Era berean pertsona horrekin garatu nahiko nukeen harremana zintzoa, irekia, lasaia, konfiantzazkoa eta zalantzarik gabekoa izan beharko litzateke. Laburbilduz, harremana ahalik eta zintzoen izatea, komunikazioarekin, harreman sexual onekin, planak egiten eta batzuetan, partekatutako espazio bat edukitzea ere gustatuko litzaidake.

Ez dakit maitasun ideal horretatik hurbil egon naizen. Josurekin heltzeko aukera izan nuen zintzoak ginelako, hitz egiten genuelako, bestearen gutxieneko esparruaren berri genuelako... Dena den, orokorrean beste harremanei erreparatuz, ezetz esango nuke. Batik bat, hitz egin gabe ziurtzat eman ditugulako gauza asko, ulertu barik bakoitzak gauzak ikusteko bere ikuspuntua duela, bere bizitzeko modua eta egoera bera oso desberdin ikusten dela alde batetik edo bestetik. Orduan jakintzat ematea besteak ulertuko zaituelakoan akatsa dela uste dut. Era berean, jaso dugun hezkuntza ere oztopo bezala ikusten dut, deseraikitze indibidual horretan maila desberdinetan egon zaitezkeelako bestearekiko. Erritmo diferente horretan, bestearen mugekin egiten dugu topo eta komunikatzeko ezgaitasuna berriz agertuko litzauguke. Hortaz, horri aurre egiteko, aurretik aipatutako hezkuntza eta komunikazioa giltzarri dira.

Talde feministan ez dugu maitasunaren fenomeno mahaigainean jarri, zeharka landu dugu, maitasuna ulertuta ikuspuntu orokor batekin: talde maitasuna, gure arteko maitasuna, erailketak edo bortxaketak daudenean... Egia da harreman erduez ere hitz egin dugula: maitasun erromantikoz eta zelan muturrera eramanda ondorio latzak dakartzan.

Dena den, iruditzen zait feminismoak maitasun erromantikoa kolokan jartzeko erramintak dituela eta horiek garatzen ari dela. Aipatzekoa da ere, genero indarkeriarekin feminismoak buelta asko eman dizkiola maitasun erromantikoari.

Orokorrean, feminismoak beste aukera asko erakutsi ditu. Maitasun erromantikoak ematen digun eredu bakarraren aurrean, ideal alternatibo asko, modu asko, tresna asko eta egoera asko luzatu ditu. Gero bakoitzak bere beharren arabera, berea propioa sor dezan. Orduan itxita zeuden ate horiek ireki ditu, maitasuna era kolektiboan ulertzeko giltza eman digu maitatzeko modu bakarra ez dagoela aldarrikatuz. Feminismoak bultzatu du jendea hausnartzera, gerora feminismoak eskaintzen dizkizun erramintekin bakoitzak pertsonalki bigarren buelta bat eman behar dion arren. Zentzu horretan, feminismoak garaturiko tresnak modu indibidualago batean proiektatu direla uste dut. Egia bada ere, kolektiboki lan handia egin duela.

Hausnarketa indibidual batetik maitasun praktikak gizartean aldatzea zaila iruditzen zaidan arren, ez dut feministak ez diren maitasun eredurik ezagutzen; behintzat erlijiotik kanpo moja batek Jainkoari dionaz gain.

4.2. Olatz: pelikulera txiki independentea

Ni, Olatz, 23 urteko neska* gaztea naiz eta bost urte daramatzat medikuntza ikasten. Lasaia naiz, gatazka gustuko ez duen pertsona horietariko. Pelikulera, mila istorio ditut buruan eta ohean nagoenean lo gelditu aurretik horiek burura etorri eta erralitatean bizi ezin ditudan gauzak imajinatzen ditut. Emozionala naiz, oso, baina emozio horiek arrazionalizatzeko gaitasuna daukat, nahiz eta arrazionalizazio horrek eragin gutxi izan emozioetan. Diziplinatua. Erlazio interpertsonalak asko gustuko ditut, baina buruhaustek eragiten dizkidate, besteekin erlazionatzen asko ikasi badut ere. Zinema gustatzen zait, amodiozko pelikulak gustuko ditut, baina ez hiperproduktzio amerikarrak, pelikula txiki independenteak, amodioa beste modu batetan kontatzen dutenak.

Azken urteetan militatzen hasi naiz auzoko gazte asanbladan eta talde feministan. Feminista naiz, militantea, feminista erradikala, femi-

nista-marxista, transfeminista... ez dakit zer abizen jarri, ez dut abizenik jarri nahi, baina buruan argi daukat.

Besterik gabe, hau irakurtzen edozein izan naiteke, eta hala da, edozein eta bakarra, inor eta ni, ni, Olatz, hori da nire izena.

Unibertsitatera joan arte, ez nuen inorekin erlaziorik izan, jai giroan ligatu dudan arren. Orokorrean, pertsonengandik bai sentitu izan dudala zerbait baina ez da aurrera eraman edo ez da elkarrenganako maitasuna izan; orduan unibertsitatera arte ni neure buruarekin egon naiz bakarrik.

Unibertsitatean nire lehenengo maitasun esperientzia izan nuen klaseko batekin. Elkar ezagutu genuen eta oso lagunak egin ginen. Harreman berezia eta intimoa bagenuen ere, denborarekin konturatu nintzen, lagunekiko nuen sentimendu desberdina sentitzen ari nintzela Hodeirekin. Berak zerbait gehiago sentitzen zuenaren ustearekin, egun batean esatea erabaki nuen eta berarentzat harremana berezia zela ere jakinda, hasi ginen gora eta behera ia bi urtez.

Oso txarto pasatu nuen. Nahiko pelikulera naiz eta unibertsitatera heltzeak maitasun esperientziarik gabe eragin zuen nik bizitzan zehar sortu nituen pelikulak beragan irudikatzea. Horrek izugarrizko dependentzia bat garatzera eraman ninduen: berarekin egon nahi nuen baina Hodeik nirekin ez. Orduan egon ginen denbora bat gelditzen baina lagunak ginenez eta berak ez zuenez nirekin gehiagorik nahi, Hodeik ematen zidanarekin konformatzen nintzen, hori edo ezereza baitzen. Azkenean, heldu zen puntu batera zeinetan ezin nuen gehiago eta horretaz jabetu nahi ez nuen arren, mingarria baitzen, harremanarekin bukatu behar nuela ikusten nuen.

Oso nekagarria eta zaila izan zen harreman horretatik ateratzen, Hodeik ez zidalako laguntzen: noizbait distantzia eskatzen nionean, berak ez zuen nahi, oso lagunak ginelako eta elkarren beharra guelako zentzu horretan. Hala ere, denborarekin inguruko beste guztia ez nuenez ikusten eta horretaz nekatua, ez nuen Hodeirekin gehiago jarraitu nahi, dena berdin zitzaidan. Harreman horrek ikaragarrizko marka utzi zidan.

Hori ahaztua, jai giro batean lagun baten lagunarekin liatu nintzen. Lo egin genuen batera eta itzela izan zen; inoiz ez nuelako izan beste

batekin gustora egoteko esperientzia, Hodeirekin intentsoa izan arren, baietzaren eta ezetzaren muturren artean egoten ginelako beti. Orduan Aratzekin egon nintzenean, ikusi nuen posiblea zela momentuaz disfrutatzea, normal eta ondo egotea. Dena den, momentu horretan ez nuen inorekin ezer nahi, nahigabe hain gustora egoteak berriro elkarrekin egotera eramaten baginduen ere.

Gauzak horrela, gelditzen jarraitu genuen eta ikus zitekeen zelan aurreko harremaneko trauma oraindik gorpuzturik nuela edo behintzat, minduta nengoela. Hasieran sexu harremanak nituenean Aratzekin, adibidez, askotan jartzen nintzen negarrez, intimitate egoera horretan neure burua jartzea eta puntu horretara irekitzea izugarritzko mina ematen zidalako. Denbora asko egon nintzen horrela, gorabeheratsu, eta gogorra izan arren, eramangarria zen.

Ordutik Aratzekin nago. Nahiz eta lehenengo hilabeteetan nahiko txarto nengoen, berak gauzak oso erraz jarri dizkit, beste ikuspuntu desberdin batetik bizi dugu harremana eta hori lagungarria izan da niretzat. Harreman irekia dugu eta Aratzekin egon naizen bitartean beste pertsona batzuekin ere egon naiz, epe luzerako izan ez den arren.

Harreman batetik bestera desberdintasun asko ikusten ditut. Garrantzitsuenetarikoa Hodeirekin zegoen botere harreman hori zen. Erlazio batean zaila da egoera sentimental berean egotea. Jakina da momentu batean pertsona batek izan dezakeela besteak baino behar handiago bat eta oso zaila da baita gauza bera sentitzea edo bizitzako puntu berean egotea; pertsona bakoitzari mila gauza gertatzen zaizkio eta normala da zentzu horretan. Baina nire ustez garrantzitsua da, nahiz eta egoera desberdinean egon, lan egitea erlazioa berdintasunean oinarritzeko.

Hori hain zuzen ere, guztiz desberdina izan da bi harremanetan; lehenengoan ni dependentzia puntu horretan nengoen eta erlazio guztian zehar horrela izan zen. Ez genuen kolokan jartzen, zegoena zegoen eta saiatuko ginen biak ondo egoten; baina hori luzatzea zaila zen eta ez zen errealia. Badakit nire ardura zela, hein handi batean, ez nintzelako gai izan hortik ateratzeko, horri buelta emateko edo *klak* bizkorrena egiteko; ezin bada, ezin da eta ez da ezer gertatzen. Hodeik, gainera, ez zekien nola egin ni ondo egoteko harremana aldatu gabe; konturatu barik harremanak berak txarto jartzen ninduela.

Oraingo erlazioa Aratzekin guztiz desberdina da. Egia da desberdintasun egoerak egon direla harremanean, baina denbora guztian hitz egiten dugu zelan gauden, zer behar dugun, zer egin ahal dugun horrela izateko... Zentzu horretan zintzoagoa da, aurreko harremanean ez nintzelako gai izan esateko zelan nengoen eta nahiz eta zaintza oso barneratua geneukan lagunak ginelako, ez genuen jakin zelan kudeatu. Oraingoan Aratzekin zaintza bermatzen dela iruditzen zait eta nire ustez, zaintza hori funtsezkoa da harreman guzietan: lagunekin, familiarekin, besteekin ditugun harremanekin... Zintzoak izan behar gara egiten dugunarekin eta pentsatzen dugunarekin, betiere bestearen sentimenduak, pentsatzeko eta jokatzeko erak errespetatzen direlarik.

Era berean, aurreko harremana Hodeirekin askoz intentsoagoa bazen ere eta adrenalina txute bat suposatzen zuen arren, gerora ajea zertorren eta inork ez du ajearekin egon nahi. Nik orain daukadan barne lasaitasuna ez dut ezerrengatik aldatzen, ez bakarrik beragatik, baizik eta bizitzan momentu honetan daukadan lasaitasunagatik. Azken finean, maitasunak eragin handia du gure egunerokotasunean eta ez soilik bikote harremanen artean; maitasuna orokorrean ulerturik, zoratzen zaituen gauza bat izatea oso toxikoa dela uste dut.

Izan ditudan ligei dagokionez, beti ligatu izan dut aurretik harreman bat dudan pertsonekin. Kasualitatea edo ez, ni horrelakoa naizelako, izan ditudan ligeak intentsitate maila batekin bizi izan ditut, baita Aratzekin egon naizenean. Hala ere, nahigabe, harreman bat duzunean eta behar batzuk jada pertsona horrekin asetzen dituzunean, ligeetan beste gauza bat bilatzen duzu: emozio puntualago bat, *salseo* bat, ez duzulako etorkizunik ikusten ligatu duzun pertsona horrekin. Egia da, jendearekin ligatzen dudanean burua blokeatzen zaidala; erruduntasun sentazio handia bizi dut, baina gero bikotekidearekin hitz eginda, hobeto sentitzen naiz. Horrek ere prozesu bat suposatu izan du niretzat, hasieran txarrago eramaten bainuen.

Alde horretatik, ez dut sexu harremanik izan harreman afektiborik gabe. Askokostatzen zait bi aspektu horiek desberdintzea, orain arte sexua eta afektibotasun hori batera joan izan direlako, gizartean harreman afektiboei sexualei baino garrantzi handiagoa ematen zaien arren. Agian horrengatik kostatzen zait nire bikotekidea ez den beste batekin harremana izatea. Dena den, Aratzekin egon naizen bitartean bi per-

tsonekin ere egon naiz: batekin behin baino gehiagotan eta bestearekin behin bakarrik. Aurretiazko afektibitate bat egon denez, bi kasuetan zaintza oso presente egon da eta beti hitz egin izan dugu gure egoera emozionalaz eta denaz orokorrean.

Aurretik esan bezala, maitasunak pisu handia du nire bizitzan. Momentu honetan papel protagonista ez duen arren orekan baitago nire bizitzako beste atal batzuekin, nahiko pisutsua da. Lehenengo harremanean, esaterako, %99ko pisua zuen; baina orain nahiz eta nire buruan leku asko okupatu, ez da hainbesterako, orekatuagoa dago gizartearekin alderatuz. Izan ere, gizartearen edozein esparrutan aurkitzen da maitasuna, maitasunaren inguruan gaude denbora guztian hitz egiten. Zentzu horretan, unibertsitatera joan baino lehen inorekin egon ez izanak presio bat suposatzen zidan, gizarteak ezartzen dituen maitasun arauen barruan ez nengoelako. Maitasuna, betiere poztasun puntu goren bezala irudikatzen delako gizartean. Hori akats bat dela iruditzen zait; maitasuna lasaitasunarekin, beroarekin, intentsitatearekin lotzen badut ere, izugarrizko mina ere suposa dezakeelako.

Hori dela eta, ezin daiteke maitasuna proiektatu poztasunaren eta osotasunaren iturri bezala. Helburua bai izan daitekeela ondo egotea edo pozik egotea, baina onartuz bizitzan gorabeherak daudela eta begibistakoa dela ez zarela denbora guztian ondo egongo. Hortaz, gizartean saltzen den irudia sinisten badugu, hau da, maitasuna poztasunaren eta osotasunaren iturri gisa irudikatzen badugu, errealitatean geure burua mugatzen egongo gineteke, praktikan horma batekin topo egiten duzulako.

Ezingo nuke maitasuna bera definitu, momentuan zelan sentitzen naizenaren arabera edo buruan daukadanaren arabera aldatzen baita nik maitasunaren inguruan dudan ideia. Lehen, egia da ideia utopiko bat neukala familiarik eta gizartetik txikitatik jasotakoa. Ideia hori pertsona batekin lotzen nuen, bizitza osorako dena, inoiz amaitzen ez denetarikoa eta bizi-proiektu bat partekatzean datzana, maitasunaren izenean. Finean, sistema hori sostengatzeko beharrezkoak diren elementuak aurki ditzakegu maitasun harreman horietan: familia eredu zehatz bat, kanon batzuen barruan sartzen dena.

Kanon horietan sar daitezke emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak. Maitasunaren esanahiari dagokionean ez dakit ikus-

puntu desberdinek dagoen; maitasuna bizitzeko eta harremanak kudeatzerako orduan, ordea, bai. Emakumeok, orokorrean, zaintzailearen papera barneratuagoa dugulako, bere zentzu baikorrean. Dena den, egia da rol hori guztiok eduki beharko genukeela, baina gizonen kasuan, esango nuke ez dutela beste pertsona kontuan hartzeko joera barneraturik.

Sistema sostengatzeko helburuarekin, beraz, maitasun eredu tradizionala gauza positibo bezala saltzen digute, konbentzitzen gaituzte eredu hori onena dela; eta oso zaila da hortik ateratzea, oso barneratua dugulako. Hala ere, guk sortea daukagu gure ingurua hausnarketarako aukera ematen digulako eta hein handi batean, hausnarketetik eta nire esperientzietatik eredu hori zalantzan jarri dut. Maitasunaren ideia errealago batera hurbildu naiz, bere zentzurik onenean. Errealitatek deskonektaturik bazaude, momentu batzuetan maitasuna ikaragarria izan daitekeelako eta zu pertsonarik alaiena, errealitatearen mugekin talka egiten duzun arte, bizitzan inoiz errealitatera bueltatuko zarelako. Horrenbestez, ikusita maitasun eredu horrek eragiten dizun mina, harremantzeko beste ereduena bila hasten zara. Bilaketa horretan, besteen esperientziak, mugimendu feministak edo militantzia esparrua izan dira erlazionatzeko eta bizitzeko beste modu batzuk ezagutzeko gakoa.

Horrek guztiak eramaten nau nire harremantzeko formak askotan zalantzan jartzera. Praktikara eramanda, maitasun eredu tradizionaletik, hau da, erromantikotik urruntzen diren harremanak izan ditut. Orain, esaterako, Aratzekin daukadana horren isla dela esango nuke, irekia baita; ez nuke polimaitasunaren izenarekin izendatuko baina horretan gabiltza. Hasteko saiatzen gara gure arteko erlazioa bizitzako gauza garrantzitsuena, esentzialena ez izaten. Egia da askotan apur bat ematen dela; lagunak astean behin ikusten baditut, berarekin astean hirutan edo lautuan gelditzen naiz, eta beraz, nahigabe batzuetan zentralitate bat hartzen du. Dena den ez nuke etorkizuneko erabakirik hartuko Aratzen arabera guztiz. Erlazio irekia daukagu eta zorionekoa ikusten dut nire burua hasieratik horren inguruan hitz egin genuelako eta biok bat gentozelako harreman motarekin, kudeaketa batzuetan *ja-leo* bat eta nekagarria den arren.

Harreman irekiarena modu natural batean gertatu bazen ere, deseraiketa prozesu oso potente bat suposatzen du. Deseraiketa hori la-

gunekin daukadan harremanarekin alderatzea gustatzen zait: lagunekin nahiko lasai gaude gutaz gain beste lagun batzuk badituzte. Eredu hori posiblea da; baina hain daukagu barneratua bestea, oso zaila dela aldatzea sentimendu sakonekin sartzen delako, sufrimendua dagoelako eta kudeatzen zaila delako. Beraz, guztiz barneraturik ditugun balioen lanketa bat suposatzen du. Horrekin batera, ezinbestekoa da gizartetik jasotzen ez duzun babes ingurukoengandik jasotzea, batzuetan lagunen aldetik ere aurpegi txarrak jaso ditudalako eta horrek eragiten du lanketarako neukan indar horri pentsamendu ezkorrak gailentzea. Familian ere kontatu dut harreman bat daukagula, harreman irekia denik esan ez dudan arren.

Horrenbestez, inguruko babes nahiko garrantzitsua da. Gizartea badakigulako ez dagoela prest horrelako harremanik onartzeko ezta bultzatzeko ere, bere barruan ez baita baldintzarik aurkitzen. Bestelako harremanak garatzen ari garenok esperimentazio fase batean egongo bagina bezala irudikatzen gaitu gizarteak; gazteak garen heinean, frogatzen edo disfrutatzen egongo bagina bezala. Dena den, fase errebelde horren ostean, noizbait norbait aurkituko dugunaren eta bizitzan zentratuko garenaren ziurtasuna du gizarteak.

Ez naiz harreman ideal orokor baten aldekoa. Uste dut bakoitzak bilatu behar duela bere ideala eta ideala momentu bakoitzean, orain nik daukadana bat izan daitekeelako eta hemetik bi urtetara beste bat, nire bizitzako baldintzak desberdinak direlako. Hortaz, pertsonaren arabera, egoeraren arabera eta lekuaren arabera, ideal asko egon daitezke. Nire kasuan, oraintxe bertan, maitasun ideala litzateke ezereza batetik sortu den maitasun eredia, aurreiritzirik gabekoa. Era berean, garrantzitsua iruditzen zait hausnaketa batetik eratutako eredia izatea, momentu bakoitzean dauden pertsonen eta harremanaren beharretara ahalik eta gehien moldatzen dena berdintasunetik eta zaintzatik ekinda.

Maitasun ideal horretatik hurbilen egon naizen momentua hau dela esango nuke, baina helburu zehatzik ikusten ez dudanez, ez dakit zer nolako hurbiltasuna daukadan. Hala ere, hausnarketa horretan lan egiten jarraitzen dut, gehiegi zoratu gabe, askotan oso nekagarria delako denbora guztian hausnarketa horretan sakontzen egotea eta batzuetan ez da beharrezkoa. Nekagarria da oztopo askorekin egiten dugulako

topo; batetik, gure barruan ditugun eraikuntzekin. Eraikuntza horiek sentimendu batzuk sortzen dizkigu eta sentimendu horien inguruan hausnartzea garrantzitsua da, gero lantzeko asmorik ez dugun arren. Bestetik, gizarteak ere ez du inongo erraztasunik jartzen horrelako harreman idealak garatzerako orduan.

Oztopo horiek gainditzeko beharrezkoa da lortzea harreman mota hori nahi duen jendearekin egotea, hau da, helburu hori duenarekin edo horretan lan egiteko prest dagoenarekin egotea; bestela, oso zaila da. Bestalde, zerotik dena asmatzen ari garenez apur bat, beste esperientzia batzuetan, jendeak egin dituen hausnarketetan, irakurketan, ingurukoekin edukitako elkarrizketetan... oinarritzea funtsezkoa da.

Talde feministan, militantzia espazio ez ofizialean maitasunaren kontua gehiago landu dugun arren, talde gisa jorratu duguna batez ere deseraikitzeke helburu batekin izan da: eredu hegemonikoa nondik datorren, zer eragin duen gero gure harremanetan, nola egin ahal diogun aurre horri... Horrenbestez, feminismoak maitasun erromantikoa deseraikitzeke erramintak garatu dituela esan daiteke.

Nire kasuan, feminismoak ideal hegemonikoarekin apurtzeko aukera zabaldu dit. Kolokan jartzen dut, ez delako jarraitu beharreko eredu bakarra; aukera bat da eta beste mila ere aurki ditzakezu. Zentzu horretan, mugimendu feministak beste mila eredu horiei hausnarketarako, esperientziak kontatzeko... espazioa eman die. ‘Pertsonala politikoa da’ horretatik, gure bizitza eta gorputzak borroka guztien inguruan ardaztera eramán gaitu, gure harremantzeko moduak ere zailentzan jartzeko giltzarri izan delarik feminismoa.

Alde horretatik, feminismoak aukera eman dit hausnarketa hori egiteko eta hausnaketa horretatik hasita, bazoaz beste guztia garatzen. Feminismoak gako batzuk zabaltzen baditu ere, ezin zaie maitasun praktikei osotasun batetik heldu feminismotik ekinda soilik. Maitasun praktika horiek sistema kapitalista heteropatriarkalaren sostengu dira, eta hortaz, sistema guztiari egin beharko genioke aurre praktika horiek gainditzeko. Ezinezkoa baita sistemaren pieza bakarra apurtzea sistema guztia apurtzen ez badugu, aldaketa modu globalago batean ulertu beharko genuke. Egia bada ere, maitasun alternatibak feminismotik bakarrik landu ditudala eta feministak ez diren alternatibarik ezagutzen ez dudala.

4.3. Julene: porrot askatzaileen aldekoa

Gazte eta bihurrien artean kokatu nahiko nuke nire burua. Adinagatik gazte izatea da dagokidana; bihurri izatearena hautua da, agian. Gizartea zelan bizi dugun ikasi nahi dut, sistemak ezagutu nahi ditut, horietan barna nik neure hautaketa egiteko. Kasualitatez ez, kausalitatez ziur, ikasketa prozesu horretan feminismoa da hautatutako bihurrikerietako bat. Bihurri bizitzeko gorputza, hizkuntza, aisia, naziogintza, familia, lana, politika, harremanak... Eta noski, maitasuna.

Hasiera batean DBHn bizi izan nituen esperientziak niri ez zegozkidan maitasun bizipenen barruan sartzen ziren, pelikuletan ageri den bezala, asko gustatzen zitzaidan mutilak normalean nirekin ez zuelako nahi. DBH 3. mailara arte ez nintzen inorekin liatu eta presioa ikusten nuen nire inguruan. Gogoratzen dut nire lehenengo lioa beste eskola bateko mutil oso guapo batekin izan zela, baina maitasunarekin lehenengo kontaktua izan arren, maitasun *shock*-ik fuertena izan da nire bizitzan oraindik ere; uste bainuen nitaz barre egiteko egin zuela.

Hala ere, garai horretan hasi ziren harreman ereduaren inguruko hausnarketak nire bizitzan sartzen ikastolan jasotako hitzaldien bidez, irakurritako artikuluen bitartez... eta DBH 4. mailan zintzotasunetik, gustuko nuen mutilarekin, goazen Unai deitzera, pausoa ematea erabaki nuen. Unai gelditzeko proposamena luzatu bazidan ere, hasiera batean sortu genuen harremana oso arraroa izan zen: baietza eta ezeztaren artean noizbait gelditzen ginen baina komunikaziorik ez zegoenez, nolabaiteko harreman toxikoa garatu genuela esango nuke. Toxikoa esaten dudanean, ez naiz ari burura datorkigun toxikotasun horretaz; komunikazio falta bati egiten diot erreferentzia.

Azkenean, kurtso bukaeran egin genuen ikasbidaian, jai testuinguru batean liatu ginen. Hortik aurrera, harremana bitxia izan zen inguruko harremanekin alderatuz, gurea oso desberdina zelako; leku desberdinetan ikasten genuen eta noizbehinka gelditzen ginen, batez ere asteburuetan. Gure arteko denbora falta eta distantzia horrek eragin zuen besteengandik aurpegi txarrak jasotzea, ez baitzelako bikote harremanen parametroetan sartzen. Dena den, denborarekin harremana *increcendo* joan zen, nagusiago zaren heinean, harremanak ere beste era batera ulertzen direlako.

Batxilergoko lehenengo mailan Zarautzera joan nintzen kuadrilla-koekin eta bertan ezagutu nuen Martin. Niretzat Martin oso guapoa zen eta berarekin egon nahi nuen, baina Unairekin nengoen eta ezinezkoa zen. Hala ere, gau batean berarekin hitz egiten egon nintzen eta kanpora begira hori *shock* oso handia izan zitekeen, bertan ere baitzeuden Unai eta bere lagunak. Momentu hartan lagun batengandik jaso nuen babesa garrantzitsua izan zen niretzat, lasaitzeko esan zidan, ez nengoela ezer txarrik egiten. Hurrengo egunean Unairi gertatutakoa kontatu nion eta gure artean krisi momentu bat bizi genuen. Nahiz eta zintzotasunetik planteatu harremana, Martinekin liatzen banintzen Unairekin nuen erlazioa bukatuko zen; eta horrela izan zen. Unairekin utzi eta Martinekin egon nintzenez, nire inguruko gutxiespena jaso nuen bai nire lagun batzuen partetik, bai besteengandik. Harreman bat uzteak ematen dizun askatasun faltsua bizi izan nuen uda horretan. Martinekin egon nintzen berriro eta tartean beste askorekin baita, gerora askotan damutzen banintzen ere. Udatik bueltan Unairekin itzuli nintzen, harreman malguago batean.

Batxilergoko bigarren mailan, kuadrillako neska batekin harreman estuagoa eduki nuen, Leirerekin. Harremana arraroa zen, jai giroan gehiago azalarazten zena eta jai momentuetatik at hitz egiten ez genuena. Azkenean, Leirerekin egon nintzen, emakume batekin nengoen lehen aldia izan zen hori eta zalantzak sortu zizkidan, ez nekielako gusatzan zitzaidan ala ez. Dena den, udan bakoitza bere aldetik egon zen.

Udatik bueltan, unibertsitateko lehenengo mailan, Unai eta biok zalantzatan geunden harremanarekin eta urrian utzi genuen. Momentu hartan ez nekien nola aterako nintzen krisi egoera hartatik; tristura handia sentitzen nuen eta ez nion irtenbiderik aurkitzen ezinegon horri. Egia da egun batzuk behar direla eta denborarekin aurre egin nien sentimendu ezkorrei. Hori izan zen nire lehenengo maitasun harremana, oso luzea.

Unairekin utzita, Martinekin ligatu nahi nuen eta arratsalde batean berarekin gelditu nintzen. Garai hartan komentario asko entzun nituen Unairekin bukatu eta Martinekin hasi izanagatik, baina betiekoek ondo zegoela esaten zidaten, argudiatuta eta niri ere kritikak eginda.

Hasiera-hasieratik Martinekin buruan neukan ea harreman mota zelan planteatu. Gure erlazioa hainbat faktorerengatik egon zen mar-

katua, gehienbat biok edukitako aldaketengatik: unibertsitatera joatea, biziaren erritmoen aldaketa, ni hasi nintzen militatzen, ikusten duzu inguruan harremanak aldatzen direla, eta beraz, zuk ere harreman ereduak aldatzen duzu... Unairekin gutxi gelditzen banintzen ere, Martinekin oso desberdina izan zen; berarekin egoteko izugarritzko premia bainuen. Edonola ere, behar hori denborarekin lasaiago eramaten ikasi nuen. Harremana itxia bezala definitzen genuen, itxia zer den oso argi ez daukadan arren.

Unibertsitateko bigarren mailan musika festibal batera joan ginen kuadrillakoak eta momentuan ezinbestekoa bihurtu zitzaizkidan mutil bat ezagutu nuen, Ander. Lagunak galdu genituen eta gauzak ondo egitearren, zaintza eta konpromiso bat nuelako Martinekin, ez nintzen berarekin liatu. Musika jaialditik bueltan, hasi ziren Martinekin elkarrizketak, eztabaidak eta hausnarketak. Uda hori nahiko leherkorra izan zen; biok harreman irekiari beldurra genion baina adostu genuen saiatuko ginela.

Bitartean nik Anderrekin hitz egiten nuen; Gasteizkoa zenez, erraza zen harremana mantentzea, ez genuelako gehiegi kointziditzen. Dena den, Martin izan zen ligatzen lehena; bere karrerako kurtso bat gutxiagoko neska batekin hasi zen, Durangokoa eta horrek ezinegona sortzen zidan jai giroan neska aurkitzeko aukera nuelako. Ez zitzaizkidan erraza iruditu egoera ulertzea; harreman irekiei dagokionean Martinek zalantzak izan arren, lehena izan zelako ligatzen.

Martinek jarraitu zuen Durangoko neskarekin eta nik bitartean ere Lesakan ligatu nuen. Une hartan, ez nintzen txarto sentitu, esperimentatu nahi nuen eta ez nuen errurik sentitu nahi horregatik. Gero, Anderrekin liatu nintzen eta behin, Bilboko jaietan Martin etxera joan zenean, erabaki nuen Anderrekin gaua ez bukatzea, egoera nahiko zaila bihur zitekeelako.

Unibertsitateko hirugarren mailan, Martin Latinoamerikara joan zen ikastera eta distantzia zela medio, harremana hozten joan zen. Bakoi-tzaren denbora eta espazio tarteak ez genituen ondo kudeatu eta azkenean, utzi genion bikote izateari. Egun oso lagunak garen arren, momentu horretan mundua jausten zitzaizkidan sentitzen nuen; Unairekin utzi nueneko krisi egoera etorri zitzaizkidan berriz: ezinegona, tristura, goragaleak... Eta beste behin, denboraren beharra hori guztia gainditzeko.

Hainbat dira Martinekin edukitako harremanetik egiten ditudan hausnarketak. Durangoko neskarekin ligatu zuenean, neskaren kontzeptuarekin munstro bat egin nuen: izua nion haiek eduki zezaketen kontaktuari eta nire buruan pelikulak sortzen nituen. Dena den, gauza horiekin egiten genuena zen hitz egin, kudeaketa hasiera batean erasokorra zirudien arren. Gogoratzen dut, Martini kontatu nioanean Anderrena, jarrera oso bortitza hartu zuela bere etxean geundela ez zuelako nirekin hitz egin nahi eta ni horretan tematu nintzen, txarto sentitzen nintzelako. Hor ere ikusten da, adibidez, norbaitekin egotearena eta gero txarto sentitzearena ez zegoela batere landua. Gauzak horrela, Marinek momentu horretan hormaren kontra golpe bat eman zuen eta egoera ikusita, joan nintzen negarrez ez zelako ezer onik aterako egoera horretatik. Egia da gero hitz egin genuela eta biok kontziente ginen jarrera horiek ezin genituela onartu, espazioak errespetatu behar zirela eta bera gizona izanda, ezin zuela horrelako jarrerarik eduki.

Era berean, nabaritu nuen Martinen erruduntasuna eta nirea ez zirela berdinak, ni txarto sentitzen nintzela pertsona batekin bi musu soilik emategatik. Baina argi geneukan harreman mota horretan sinisten genuela eta saiatzeko jarraituko ginela. Alde horretatik, ligeak espaziatuagoak ziren eta Anderrekin eta Durangoko neskarekin geneukan harremana normalizatzen hasi ginen. Orduan dena hoberantza joan zen, hobeto kudeatzen genituen gure harremanetik kanpoko erlazioak; lehen pisu bat suposatzen zuelako kudeaketagatik, jelsokortasunagatik, zeloen kudeaketagatik, ingurukoek ere ez zutelako ondoegi ulertzen...

Harremanaren bukaeran asko zentratzen ginen bestearen zaintzan; ligatu arren, bestearen zaintza bermatzearen beharra ikusten genuen. Ligatzearekin ikusten genuelako agian espazio bat behar genuela bestearekiko, normala zela besteaz pixka bat ahaztu nahi izatea... baina hori guztia zaintza baten barruan. Hortaz, zaintzaren papera, orokorrean, ez soilik Martinekin, funtsezkoa izan da.

Gaur egun ez dut bikotekiderik eta militantziari, lagunei eta abarrei denbora gehiago eskaintzen diedala ikusten dut. Egia da, tartean Anderrekin eta besteren batekin hitz egiten dudala edo jai giroan baten batekin ligatzen dudala. Esan beharra dut, gutxi ligatzen duen horietakoa naizela, pertsona finko batzuekin eta zentzu horretan nire burua selek-

tibatzat hartzen dut, ligatzen dudan momenturako, nahiko argi daukadalako ligatu nahi dudala. Orduan eduki ditudan bikotekideez gain, ligeekin ere ondo sentitu naizela esango nuke.

Alde horretatik, garrantziari dagokionean, harreman afektiboen eta sexualen arteko desberdintasunik ez dut ikusten, guztiz orekatuko ez nituzkeen arren. Biek garrantzia dute eta momentuaren araberakoa da niretzat. Behin lagun batekin hitz egin nuen zelan sexua kenduko baligute, ez ginela harreman batean egongo. Agian fuertea da hori esatea, baina afektibotasunak kudeaketan eta ikasterako orduan pisu handia badu ere, sexuak badauka ikasteko eta afektibotasun hori barneratzeko ahalmena baita.

Afektibotasun hori ez dut ezta ere bikotekide batekin bakarrik ulertzen. Egunean zehar ditudan kontaktu guztietan dago maitasun harreman bat, afektibitate bat; esnatzen naiz eta gurasoak daude etxean, kalera noa eta lagunekin maitasun harremanak ditut. Konstate zabal bat da maitasunarena, nahiz eta gizartean asko zentratzen den harreman heterosexual normatiboetan. Normatiboak direla diot bikotea emakume eta gizon batez osatzen delako, guapoak izan behar direlako, zuriak... Maitasun normatibo horrek dirua ematen du eta asko iragarkietatik ateratzen dira. Halaber, familia maitasuna ere presente dagoela esango nuke.

Asko proiektatzen da ere gizartean maitasuna guztiarekin ahalko lukeen indar bezala, magnifikazio eta poztasun batekin. Poztasun hori, edozelan ere, psikologikoki barneratua daukagun osotasun toxiko batekin lotzen da eta nire ustez hor akats larri bat dago. Maitasuna harreman afektibo positibo batekin lotzen dudalako, hau da, poztasun baikor eta osasuntsu batekin lotu nahiko nuke; ez osotasun batekin. Maitasunak ez du osotasun bat bermatzen, guk zaintzatik, hausnarketatik, buruhausteetatik... landu beharreko konfiantza da osotasunarena. Horrenbestez, geure buruei galdetu beharko genieke zer osotasun ari garen planteatzen.

Bide horretatik, maitasuna ez genuke soilik libreki edo positiboki proiektatu behar. Harreman afektibo horiek zailak baitira ez soilik bikotekidearekin, lagunekin eta familiarekin ere gorabeherak daude. Martinekin bizitako esperientzietan ikusten dut hori. Ezinbestekoa da maitasunaz ari garenean porrotak ere kontuan hartzea, horietatik ikas-

teko eta migarria badirudien ere, polita da harreman askatzaile horietan berrestea eta apostu egitea.

Beraz, garrantzitsua iruditzen zait gizartean bultzatzen den poztasun egoera estatikoa, dena ondo doanaren seinale dena ukatzea. Era berean, liberalismoaren eragina ere argia da, askatasun faltsu bat saltzen digulako gerora askatasun bera kontraesanetan jausten delarik; bada, askea izan zitezke edozer gauza egiteko, baina sexuaren arabera, emakumea izanik zigor morala jasotzen duzu nahi bezainbeste pertsonekin egoten zarelako. Zentzu horretan, maitasun eredu oso markatu bat egon arren emakume zein gizonentzat, Disney maitasunean oinarritzen dena eta denok oso barneratua daukaguna, emakumeengan zaintzaren, garbitasunaren, edertasunaren... zama jausten da; eta gizonengan, aldiz, babesarena, indarrarena, aktibotasunarena...

Horrenbestez, maitasun eredu horren, goazen maitasun erromantikoa deitzera, eraginak handiak direla esango nuke. Nahiko barneratuak ditugu eta ez bakarrik harreman heterosexualetan, homosexualetan ere birsortzen dira. Horrek ez du esan nahi maitasun erromantikotik urruntzen diren bestelako erlaziorik garatu ezin daitekeenik edota maitasun erromantikoa zalantzan jarri izan daitekeenik. Are gehiago, badaude zenbait teoria, feminismoak planteatzen dituenak, esaterako, horretara bultzatzen zaituztenak eta esango nuke beti saiatu izan naizela nire harremanak zalantzan jartzen. Nahiz eta askotan harreman hegemoniko horren eraginak ikus daitezkeen.

Maitasun erromantikoarekin bat ez datorren harremanik ere izan dut: bikotekidea ez den beste jende batekin liatzerakoan, emakume batekin egiterakoan puntuala izan bada ere... Horiek ez dira normatiboak eta zaintzak ere paper oso handia izan du, zaintzaren kontua besteekin liatzerakoan gehienetan ondo egiten ez dugun arren. Baina zaintzaren beharra horrelako harremanetan nahiko handia izan da eta hausnarketarako joera konstantea baita ere.

Alde horretatik, bestelako harremanak garatzerako orduan, nire aldetik iruditzen zait gehiago irakurri behar dudala, informatu eta dokumentazio horren hausnarketa taldean egitea funtsezkoa dela uste dut, nahiz eta ez ditugun aurrera eramaten. Gizartearen presioak erlaxatu behar direnaren aldekoa naiz eta hezkuntzan sakontzea ere garrantzi-

tsua deritzot prozesu horretan, izan ere, hezkuntza horren bidez, gizar-tean dauden baldintza horiek ezeztatzen dira.

Hala ere, ez dut horrelako baldintzarik gizar-tean aurkitzen, orotara, 'x' batekin irudikatzen baitira maitasun erromantikotik urruntzen diren harremanak. Fideltasuna oso barneratua dugu eta horren arabera epaitzeko joera, badirudielako bikotea ez den beste batekin liatzen zarenean «adarrak» jartzen dituzula eta seguruenik harreman itxi batean gauza bera egiten dela. Sexualitateari dagokionez ere, 'x' batekin markatzen dira harreman homosexualak, koittoa bizitzako gauzarik garrantzitsuenak izanik, koittoa praktikatu behar duzulako.

Ez dut uste maitasun idealik existitzen denik. Maitasun harremanetan hartu-eman baikor zein ezkorrak daude. Niretzat ideala izango litzateke askatasuna edukitzea harreman desberdinak aurrera eramateko, inongo aurreitirik gabe. Erabakitzeko askatasun hori ez da soilik harremanetara mugatu behar, askotan badirudielako ere feminis-tena zarela lesbiana bazara, depilaturik ez bazoaz... Edozelan ere, erabakimen hori lortzeko zenbait oztopo identifikatzen ditut: barneratuak ditugun kontzeptuak moldatzeko zailtasuna, epaiketak egiteko joera... Askatasuna balego, barruan daukaguna aldatzeko erraztasun handiagoa edukiko genuke. Horretarako, aurretik esan bezala, hezkuntza garrantzitsua da, hausnarketarako eta lanketarako gaitasuna. Behin hezkuntza hori jasota komunikazioa eta zaintza ere azpimarratuko nituzke.

Talde feministan maitasuna jorratu dugunean, maitasun erromantikoa kritika eginez izan da. Kritikatu dugunean, askatasunaren aldarrikapena ere egin dugu, askatasun horretatik abiatuz gero bakoitzak planteatu dezan alternatiba posible hori; mugatzeak baitakar eredu finko batzuk jarraitzea eta hori sahiestu beharra dago. Zentzu horretan, esan dezaket feminismoak maitasun erromantikoa gainditzeko erramintak jarri dituela, harreman afektibo eta sexualak agerian utzi dituelako askatasunaren aldarrikapena eginez. Askatasunaren esanahi liberaletik urrunduz, muga gabeko hautatzeko aukeran berresten da feminismoa; horren adibide dira normatibatik kanpo dagoenaren aldarrikapena egin izana: bolleren eta harreman homosexualena, LGTBIQ kolektiboaren manifestazioak... Laburbilduz, hausnarketarako joera eta aldarrikapena egin du feminismoak.

Haunarketarako giltza ere eskaini dit niri, hausnarketa horiek egin baititut eta saiatzen bainaiz egiten nire harremanetan, akats edo porrot asko ikusten ditudan arren. Alde horretatik, feminismitik eraginda maitasun praktikak bere osotasunean alda daitezkeela uste dut, horrekin batera autoestima ere garatu behar delarik. Bada, harremantzeko forma alternatiboak praktikan jartzen dituzunean, gizarte batekin egiten duzu topo zeinak ez dizun horrelakorik onartzen. Oraindik feminismitik proposatzen diren giltzetatik ekin diet harreman alternatibo horiei eta feminismitik at gelditzen diren bestelako harremanik existitzen bada, jakin nahiko nuke zeintzuk diren.

4.4. Amaia: lotura solidarioak ipar

26 urte ditut, eta gutxi gorabehera 16 urterekin hasi nintzen feminismoa lantzen institutuko taldean. Era guztiz intuitiboan, inolako formakuntzarik gabe eta esperientzia pertsonalak eta ingurukoena bultzatuta. Geroztik feministatzat hartu dut nire burua, baina ez dut inolako talde feministan militatu, joan den urtera arte. Euskal Herriko feminismo hegemonikoan ez dut nire lekua aurkitu; feminismoaren alde sentimentala edo azalekoa nabarmentzen dute eta mugimendu indartsua izatetik urrun, kapitalismoak bereganatutako beste espektakulu bat baino ez dute eragin.

Maitasunean eta feminismoan harremantzeko era desberdinak biltzen ditut, kapitalismoaren kontsumo logikatik at. Horretarako, uste dut feminismoak kapitalismoaren aurkako harraminta izan behar duela, eta elkartasun praktiken eredu izan.

Nire lehenengo harreman afektiboa 16 urterekin izan zen. Hila-bete bakar batez egon ginen batera eta ez genuen gehiegi kudeatu, esperimentazio lio bat baino ez zen izan. DBH laugarren mailan hasi nuen nik lehenengo bikote harremantzat hartzen dudana. 2-3 urtez egon ginen batera eta harremanik garrantzitsuenetarikoa dela esango nuke, pertsona horrekin egin baintuen lehenengo gauza guztiak. Momentu horretan dena aldatzen hasi zen: nire lagunekin ateratzen hasi nintzen, jende berria ezagutu nuen, institutua utzi eta unibertsitatera joan nintzen, bertan ere jendea ezagutu nuen... Era berean, sexu harremanak edukitzen hasi nintzen eta hor

gauza asko deskubritu nituen; bai nireak propioak, bai jendearekin harremantzekoak.

Orotara, Julenekin harremana ona izan zen. Behin liatu ginen eta gerora gehiagotan egiten genuenez, azkenean elkarri galdetu genion ea ateratzen ari ginen ala ez. Lehenengo 2 urteak harreman itxia bezala ulertzen dena izan zela uste dut, baina horri buruz hitz egin edo eztabaidatu gabe; praktikak horretara eramán gintuen. Inoiz bion arteko leialtasun falta egon bazen ere adarrei edo dena delakoei dagokionean, dena hitz egiten genuen eta ondo kudeatzen genuen. Hala ere, heldu zen momentu bat zeinetan pentsatzen hasi nintzen harreman hori nire bizitzako momentu horretan ez nuela nahi. Zaila iruditzen zitzaidan besteari zer nahi nuen azaltzea edo harremana beste era batean planteatzea, ez nekielako zer nahi nuen, eta azkenean, ez maretzearren, utzi nuen, gerora harreman sexualak edukitzeko geratzen jarraitzen genuen arren.

Eduki dudán bigarren bikote harremana esperientzia txarra izan zen. Pertsona nagusiago batekin irteten hasi nintzen eta hilabete bat igaro ondoren, arazoak hasi ziren. Harreman oso derrigortua izan zen hasieratik, ez nuelako berarekin egon nahi baina konbentzitu ninduen. Denbora guztian egon ginen txarto eta momentu batetik aurrera ez nuke maitasun bezala definituko harremana. Era guztietako praktika toxikoak jasotzen nituen bestearen partetik eta mila aldiz utzi nuen arren, psikologikoki hain manipulatzailea eta azkarra zen, penagatik eta bera lagunduko nuelakoan, berriz bueltatzen nintzela berarekin.

Harreman itxia eduki genuen eta oso zaila izanik ere, azkenean bera uztea lortu nuen. Gaur egun, Markelekin nago eta urtebete eta hiru hilabete daramatzagu. Hasieratik saiatu ginen harreman ireki bat edukitzen, orain ere badena baina praktikan ez. Ez gara ligatzeko erraztasuna duten pertsonak eta ez da askotan gertatu, baina gertatu izan denean arazoak izan ditugu egoera kudeatzeko. Praktikan ikusi dugu ondorio batzuk daudela eta gauza dezente hitz egin behar direla, asko pentsatu, hausnartu... Hortaz, buruko min hori saihesteko helburuarekin gauza batzuk egiteari utzi diogu. Beraz praktikan, harreman itxia dela esango nuke.

Halaber, bion arteko harremana era berean ulertzen dugu, bat gator maitasun eta bikote harremanaren ulerkerarekin eta horrek gauzak

errazten ditu. Julenekin batera, Markelekin daukadan erlazioa laguntzen zaituen harreman horietakoa da. Erdiko *inpassé* horrek gauza asko erakutsi dizkit, noski, baina nahiko suntsitzailea izan zen niretzat.

Zaintzaren paperari dagokionez, oso garrantzitsua izan da orokorrean. Julenekin deskubritu nuen pertsona batekin posiblea zela konplizitate bat garatzea gauzak kontatzeko, hitz egiteko... Bai biok eta baita ingurukoak ere etapa oso berezi batean geunden, nerabezaroan, eta zentzu horretan uste dut ondo zaindu genuela gure burua eta gure ingurua. Zaintza era natural batean gauzatu zen; hau da, ez genuen ikusi bikotekidea izateagatik babestu behar genuenik bestea. Lagunak zaintzen genituen moduan eta beste lagun bat zaintzeko prest gauden bezala, gure artean zaintza bermatu zela iruditzen zait.

Bigarren bikote harremanekoa ez dut zaintza kontsideratzen. Ez dakit zerekin lotu, sumisioarekin agian. Dena den, nik baneukan beste pertsona zaintzeko zaintzailearen rola hartuta, hori zaintza ez bazen ere. Psikologikoki nire burua suntsitzen ari nintzen eta ez nengoen beste pertsona hori zaintzen ere. Bestearen arazo psikologikoak jaten ari nintzen soilik.

Markelekin, aldiz, zaintzak rol handi bat dauka. Ideia politikoak partekatzen dituen pertsona bat ezagutu izanak, afinitate bat suposatzen du gure artean. Zaintza inplizitua da, ez baikaude denbora guztian horri bueltak ematen, naturalki gauzatzen da. Bestalde, gure ingurua ere zaintzen dugu; zaintza ez dugu gure artean bakarrik ulertzen, guk ere lagunak zaindu ditzakegu eta lagunaren partetik zaintza hori jaso. Gainera, lagun esparru asko partekatzen ditugu eta horrek zaintza lan horiek errazten ditu.

Lige eta bikotekideen artean desberdintasunak antzematen ditut, gehienbat denbora kontuengatik. Bi gauetan, jai giro batean edo beste-lako testuinguru batean, mendian, adibidez, nahiz eta arraroagoa izan, ezagututako pertsona batekin garatzen duzun harremana desberdina da. Ezagutzen duzun horrekin egunerokotasuneko espazioetan gertatzen zaizkizun kontuak partekatzen dituzu, presentziala ez izan arren; eta gauza horiek ez dizkiozu kontatzen harreman sexual edo afektibo puntual bat izan duzun pertsona horri. Edo agian bai, baina berdina ikusten dut lagunekin: unibertsitateko lagun normal batekin edo zure lagun minarekin duzun konfiantza.

Alde horretatik, harreman afektiboak landu ahal izateko konplizitatea beharrezkoa da eta konplizitate hori lortzeko, denbora. Konfiantza horrek ere eragina du harreman sexualetan, baina ezin da hainbesteraino landu gau batean ezagutu duzun pertsona batekin. Gauza bera gertatuko litzateke lagun min batekin harreman sexualak badituz; desberdina da berarekin konfiantza daukadalako eta horrek eragin bat izango duelako harreman sexualean. Ez nuke esango harreman afektiboek sexualek baino pisu gehiago dutenik, iruditzen zait batak bestean eragin bat sortzen duela.

Edozelan ere, maitasunak nire bizitzan hartzen duen tokia agerikoa da. Saiatzen naiz maite ditudan pertsonak zaintzen eta nire inguruko jendearekin egoten. Niretzat maitasuna oso garrantzitsua da eta uste dut, denbora guztian presente eduki beharreko gauza bat dela, bat-bateko harreman interesatuetan erori ez badugu nahi. Maitasunaren inguruan hitz egiten dudanean ateratzen zaidan lehenengo gauza bikotekide maitasuna izan arren, saiatzen naiz maitasuna zentzu zabalago batean ulertzen: nire ingurukoekin garatzen ditudan harreman hurbiletan, esaterako. Izan ere, maitasun harremanak dira pertsona bezala ere definitzen gaituztenak; alegia, zu zara zu eta zara zure lagun guztiak eta maite dituzun pertsona guztiak.

Gizartean, ordea, maitasuna ez da irudikatzen lehenetsun bezala, gure egunerokotasuneko bizitza harreman interesatuetara laburbiltzen delako. Harreman interesatuez ari naizenean, atzean dagoen trukerako balioaz mintzo naiz. Egunerokotasunean espazioa partekatzen dugun pertsona horiekin erlazioa dugu, batetik, bizikidetzagatik eta bestetik, haiengandik zerbait nahi dugunean. Gure egunerokotasunean jendearekin harremanetan jartzen garenean zerbait trukean jasotzeko da: izan kafea, bainujantzia, apunteak... Hortaz, pertsona horiekiko ez duzu maitasun harreman bat garatzen. Esango nuke familian ere aurkitzen den maitasuna interes batzuen eraginpean funtzionatzen duela, familiarik elkartuta mantentzeko erabiltzen baita maitasuna aitzaki gisa. Interesetatik edaten du maitasunak gizartean, poztasun, osotasun eta sentimendu material eta faltsuetatik.

Orokorrean maitasuna elkarzaintzan, poztasunean, zirraran... ulertzen bada ere, erreparatu beharko genioke zeini lotzen zaion maitasuna eta maitatu ahal izateko gaitasuna, hemen familia eta bikotekidea sar-

tzen dira. Maitasuna gizartean nukleo batean ardaizten bada, familiaren eta bikotekidearenean dira, biak bideratuak baitaude seme-alabak edukitzera, familia nukleo itxietara, heterosexualitatera... Horrenbestez, maitasunak familia ekoizpenera bideratzeko rola dauka eta familia horren uncoroko babesa aldarrikatzen du, horrek hurrengo suposatzen badu ere: familiarteko harreman matxistak aguantatzea, dependentzia ekonomikoak sortzea... Horrela, maitasuna interesen joko-zelai bihurtzen da gizartean, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak handitzen dituelarik.

Emozioekin lotu beharko banu maitasuna segurtasunarekin, lasaitasun emozionalarekin, konplizitatearekin, zirrarekin, ilusioarekin, poztasunarekin... lotuko nituzke. Jakinda, maitasun harreman batean edozein motatako sentimenduak aurki daitezkeela momentuan momentuko arrazoiengatik: tristura, haserrea, larritasuna... Maitasunak ere buruhauste asko ekartzen ditu, mina ere senti daiteke maitasun harremanetan edo horien ostean. Orduan maitasunean sentimendu guztiek tokia daukatela esango nuke; beste kontu bat da zelan kudeatzen diren sentimendu horiek.

Edonorekin praktikatua ere (lagunartean, bikotekidearekin, beste gauza batzuekiko maitasunean...) maitasuna elkarren arteko zaintzan eta konplizitatean oinarritua egon behar dela uste dut. Ez dut tentsio bezala ulertzen, egia bada ere, maitasuna gatazkatsua izan daitekeela unean uneko egoerak baldintzaturik. Baina ez badago konfiantzan eta elkar zaintzan ardaztua, niretzat ez dauka zentzurik. Ez bakarrik bikotekide harremanetan; inguruak baldintzatzen gaituela ikusita, inguruarekiko elkar zaintza ere iruditzen zait gakoa. Horrela ulertzen dut maitasuna, gero elkar zaintza zer den, hori beste gauza bat da.

Maitasunarena guztioi kuriositatea sortzen digun gai bat da eta zentralki zeharkatzen gaitu. Esperientziatik abiatuak sortu dut maitasunaren inguruan dudak ideia hori, bai esperientzia propioetatik, bai nire inguruko esperientzietatik. Ez dut inoiz politikoki landu, baina maitasuna egunero egiten den gauza denez, era natural batean barneratzen dugula esango nuke.

Natural bezala azaltzen zaigun arren, noizbait nire harremantzeko formak zalantzan jarri ditut. Garrantzitsua iruditzen zait noizbehinka zalantzan jartzea, beti ez bada ere, denbora guztian geure burua za-

lantzan jartzea nekagarria delako. Energia behar da lanketa horri aurre egiteko eta momentu emozional egonkor batean egon behar zara. Bestela oso zaila iruditzen zait; batik bat, ez delako zure buruarekin bakarrik egiten duzun gauza bat, baizik eta zure inguruarekin eta harreman praktika hori egikaritzen ari zaren horrekin baita ere.

Hasieran 16 urte dituzunean maitasuna soilik ulertzen duzu bikotekide harreman itxi eta heterosexual bezala. Gerora bazoaz ikusten badaudela beste praktika batzuk, eredu batzuk, ikusten duzu zure inguruko jendeak zelan egiten duen, entzuten duzu... Horrek eraman ninduen nire harremanak zalantzan jartzera. Harreman irekiak modan dauden honetan eta era kontzienteago batean harremanak politikoki landu nahi izan ditudanean, saiatu naiz nire burua eta inguruko jendearekin harremantzeko moduak kolokan jartzen, unean uneko plazerretan oinarritutako harremanak ekidite aldera. Edozelan ere, ez daukat argi zeintzuk diren praktikan jarri nahi ditudan harremanak, ez dut uste formularik dagoenik hori jakiteko; momentuko zure egoerak baldintzatzen du norekin, noiz, non eta nola garatuko duzun harreman bakoitza. Are gehiago, arraroa sentitzen naiz praktikan harreman itxi bat daukadala esaten dudanean.

Hala ere, saiatzen naiz maitasun erromantikoarekin bat ez datozen harremanak aurrera eramaten. Ez dakit zer puntura arte urruntzen diren eredu hegemoniko horretatik, baina hausnarketarako behar horretaz kontziente naiz eta presente daukat. Maitasun erromantikorekin alderatuz, harreman alternatiboak elkartasunean eta elkar zaintzan oinarritu behar direla uste dut. Alde batetik, garrantzitsua iruditzen zaidalako uneoroko edo noizbehinkako birplanteamendua izatea.

Bestetik, harreman horietan dauden pertsonak emozionalki lasai sentitzea ere funtsezko faktorea da niretzat, harremanak tentsioaren eta mendekuaren inguruan ardaztu ez daitezen. Konfiantzazko espazio babestu bat izan behar da pertsona horiek alboan dituzula jakinda. Horrelako harreman idealek denbora bat eskatzen dute konplizitatea lantzeko eta bide batez, lasaitasun hori eskuratzeko. Saiatzen naiz unean uneko harremanetan horrela egoten, baina egungo baldintzak ikusirik, zaila iruditzen zait nukleo itxi eta txiki bat hartzea harreman ideal horiek praktikatu ahal izateko. Inguruko guztiak eragina du guban, eta beraz, ezin ditugu gure harremanak tiradera itxietan sartu.

Hortaz, egun eta hemen, harremanen inguruan hausnartzea beharrezkotzat jotzen dut: pertsona horiekin hausnartzea, presente edukitzea arazoak daudenean hitz egin behar direla, espazio lasai batean zein jai giroan gure inguruarekin zelan harremantzen garen aztertzea, militantzian gaudenean... Orotara, kontziente izatea gure harremanen nolakotasunaz eta momentuak edukitzea bion artean hitz egiteko, askotan arazorik ez badago ez garelako bestearekin zelan gaudenaren egoeraz mintzatzen. Ondo gaudenez, alde batera begiratzen dugu eta iruditzen zait, bikote harremanetan bezala, bi pertsonen arteko harremanetan ere espazio intimo gehiago planteatu behar direla, berez geure buruari aitortzen diogun askatasun faltsu horretan ez jausteko.

Horrelako baldintzarik ez dut gizartean aurkitzen. Bizitzaren erritmoa bera oztupo bat da eta horrelako eredurik ez edukitzeak ere gauzak zailtzen ditu. Ez gaude gure sentimenduak adieraztera ohituta, ez lagunekin, ez familiarekin, familia esparru pribatuena izanik. Ez ditugu sentimenduak jorratzen: nik zurekiko sentitzen dudana, harremanarekiko sentitzen duguna, neba-arreben artean daukaguna... Ez dugu hori inoiz ikasi, familian ez dugu ikusi eta asko kostatzen den gauza bat dela uste dut. Emozioak adierazteko trebetasun falta horretan lotsa ere sar daiteke, baina beharrezkoa da lotsa sentimendu hori kolokan jartzea.

Horren aurrean, saiatu behar gara gure inguruan maitasunaren beselako ulerkeraz zabaltzen. Bikotekide harreman bezala ulertzen badugu soilik, gure inguruan eragiteko aukera mugatuko genuke. Orduan funtsezkoa da maitasun praktika kontzienteen inguruko aldarrikapena egitea. Gure arteko hausnarketa kolektiboak bultzatu behar ditugu, gogoeta horiek gero senideekin, lagunekin, auzokideekin... finean, ezagutzen dugun pertsona ororekin praktikan jartzeko. Nahiz eta egungo sisteman zaila den eta askotan sistemak asimilatzeke mekanismoak garatzen dituen.

Alternatiba gisa agertzen zaizkigun praktika askok ez dute sistema auzitan jartzen. Harreman alternariboez ari naizenean, harreman ireki polimaitaleez ari naiz. Sistema kapitalistaren barruan kokatzen diren heinean, momentuko desio eta gogo sexual edo afektiboak asetzeko bideratzen dira eta elkar zaintzan guztiz oinarritzen ez direnez, oso asimilagarriak dira. Ez nituzke maitasun praktiken barruan kokatuko ezta feministatzat hartuko ere, beste pertsona batzuen kontsumoa baino ez

dutelako sustatzen, puntu batera arte praktika hegemonikoen aurka egiten duten arren. Hortaz, sistemak ez ditu mehatxu bezala irudikatzen, denbora guztian berregituratzen baita horrelako zirrikituei aurre eginez.

Gure talde feministak bi urteko ibilbidea izanik, momentuz ez dugu maitasuna kolektiboki eztabaidatu ezta planteatu ere egin. Dena den, feminismoak maitasun erromantikoa kolokan jartzeko erremintak garatu dituela uste dut. Bestelako harreman mota batzuk azalerrazten saiatu da eta horrek eraman du maitasun erromantikoa kolokan jartzera. Eragina izan du jendeak maitasunaren, eta zehazki, maitasun erromantikoa inguruko bestelako perspektiba bat garatzerako orduan; mundu honetan beste gauzekin gertatzen den bezala, guztiz lortu ez duen arren.

Feminismo mota desberdinak dauden momentutik ere, ez dago adostasunik praktika horiei dagokienean, bakoitzak modu batean ulertzen baititu. Hala ere, nire ustez, feminismoa elkartasunean oinarritu beharko litzateke eta elkartasun horretatik saiatzen naiz ni harremanak eraikitzen. Feminismoak maitasun erromantikoa identifikatzen laguntzeaz gain, elkarbabesean eta elkartasunean ardazten diren ereduak egingarriak direla erakutsi dit militantziako kideekin, talde horrek eragiten duen eremuarekin, beste emakumeekin...

Edozelan ere, kontziente naiz feminismotik bakarrik eraginda ez direla maitasun praktikak bere osotasunean aldatzen. Inguruko harremanak beste ikuspuntu batetik daude enfokatuak. Orduan feminismoak aldarazi nahi dituen praktikak emakumeen artekoak eta bikote harremanetan zentratzen direnak izanik, bere mugak dituela esango nuke. Dena den, ez nuke zuria edo beltza bezala proiektatuko; feminismoak aldaketarako bidean bere ekarpenak egin ditu eta egiten ari da.

5

Analisia

Hurrengo atalak narratiben bizipenen, tentsioen, hausnarketan eta erronken elkargunea izan nahi du. Horretarako, marko teorikoan jorraturiko alderdiez eta nire ekarpenez baliatuko naiz, parte-hartzaileen kontakizunekin batera maitasunaren inguruko analisia ehuntzeko asmoarekin.

5.1. Maitasunaren definizioa

«Maitasuna funtsezkoa den emozioa da eta daukan balioa aitortu beharra diogu, askotan ematen ez badiogu ere. Indarra da maitasuna eta diruak baino gehiago mugitzen duela iruditzen zait. Maitasuna harremanen oinarria izanik, erein eta zaindu behar da.»

(Idoia, 26 urte, bikote gabea)

Maitasuna zer den definitzea zaila bada ere, lau protagonistek maitasunaren alderdi kontrahegemonikoetatik abiatzen dira haien maitasunaren ideia eraikitzeko. Olatzek momentuan zelan sentitzen den edo buruan zer daukanaren arabera mugatzen du esanahia. Julenek maitasunarena konstante zabal bat dela gehitzen du. Kuriositatea sortzen digun gaia den heinean, zentralki zeharkatzen gaituela uste du Amaiak, eta hortaz, maitasuna elkarren arteko zaintzan eta inguruarekiko zaintzan ardatzen dela baieztatzen du. Idoiak, berriz, balioa duen funtsezko emoziotzat hartzen du: «*Indarra da maitasuna eta diruak*

baino gehiago mugitzen duela iruditzen zait. Maitasuna harremanen oinarria izanik, erein eta zaindu behar da». Hala ere, ez dute bikotekide batekin soilik ulertzen maitasun hori, Amaiari burura datorkion lehenengo gauza bikotekidea den arren. Maitasuna askoz harago doala adierazten du Idoiak «*pertsona bat maitatzen hasten naizenean (...) pertsona horrek mindu ahal zaituenean edo mintzeko botere hori duenean gertatzen da*» eta mintzeko botere hori edozein harremanetan aurki daitekeela gaineratzen du. Amaiari jarraiki, «*zu zara zu eta zara zure lagun guztiak eta maite dituzun pertsona guztiak.*».

Harreman horiek guztiak pertsona bezala definitzen dituzten momentutik, maitasunak protagonisten bizitzan hartzen duen tokia agerikoa da, egunerokotasuna maite dituzten pertsonekin partekatzen baitute. Idoiak dioen bezala «*denok behar dugu maitasuna eta denok behar dugu esan, denok behar dugu kontaktu fisikoa.*», eta hortaz, denbora guztian zaintzan oinarrituriko maitasuna presente edukitzearen aldeko apostua egiten du Amaiak, «*harreman interesatuetan erori ez badugu nahi.*»

Alde horretatik, maitasuna sentimendu positiboekin lotzen dute: lasaitasun emozionalarekin, segurtasunarekin, konplizitatearekin, poztasunarekin, ilusioarekin, zirrarekin... egia bada ere ez dutela bere zentzu betegarrian proiektatzen. Harreman afektibo horiek zailak dira dio Julenek «*ez soilik bikotekidearekin, lagunekin eta familiarekin ere gorabeherak daude.*». Horrenbestez, «*maitasunean sentimendu guztiek tokia daukatela*» ondorioztatzen du Amaiak, mila buruhausterekin topo egiteko eta mina ere sentitzeko aukera baitago; «*beste kontu bat da zelan kudeatzen diren sentimendu horiek.*» gaineratuz. Orotara, maitasunaren ideia hori Idoiaren arabera familiaren motxila baikorretik, lagunartetik eta haien prozesuetatik edukitako hartu-emanen bidez joan dira eraikitzen.

Dena den, Olatzi jarraituz, «*ezin daiteke maitasuna proiektatu poztasunaren eta osotasunaren iturri bezala*». Bere ustez, «*helburua bai izan daitekeela ondo egotea edo pozik egotea, baina onartuz bizitzan gorabeherak daudela eta begibistakoa dela ez zarela denbora guztian ondo egongo.*». Gauzak horrela, gizartean nagusitzen den uneoroko poztasun gorena ukatzen dute; maitasuna ezin da irudikatu guztiarekin ahal duen indar gisa Juleneren ustez, ezta osotasuna bermatzen duen

baldintza bezala. Bada, osotasun hori toxikotasun batekin harreman-
tzen dute eta horren aurrean, osotasunaren bestelako planteamendu
bat egiten dute, zaintzatik, hausnarketetatik, buruhausteetatik... landu
beharreko konfiantzan laburbilduko litzatekeena. Hau da, maitasun
erromantikoa aurkitzen dugun *omnipotentziaren mitoa* eta *laranja*
erdiaren mitoa (Yela García, 2000) ezeztatzen dituzte emakume femi-
nista hauek, ez dutelako ikusten maitasuna edozerren gainetik dagoe-
nik, ezta haien bikotekide idealekin elkartzean, osotasun absolutoa lor-
tuko dutenik ere.

Orokorrean, Amaiak azaltzen duen bezala «*interesetatik edaten du*
maitasunak gizarrean, poztasun, osotasun eta sentimendu material eta
faltsuetatik». Maitasun hori harreman heterosexual normatiboetan oi-
narritzen dela dio Julenek, emakume eta gizon zuri batez osaturikoa
baita. Zentzu horretan, Amaiak hausnarketarako gako bat botatzen
du «*erreparatu beharko genioke zeini lotzen zaion maitasuna eta mai-*
tatu ahal izateko gaitasuna», familiara eta bikotekidera bideratzen dela
gehituz. Horren atzean dauden interesen inguruan ere mintzo dira na-
rratibetan, sistema sostengatzeko helburuarekin ardatzen baita mai-
tasuna nukleo horietan Olatzen aburuz, eta horretarako, «*maitasun*
eredu tradizionala gauza positibo bezala saltzen digute, konbentzitzen
gaituzte eredu hori onena dela». Definizio horrek Estebanek (2011) ai-
patzen duen familiararen eta ezkontzaren instituzioen sentimentaliza-
zioarekin bat egiten du, explotazio eta dominazio harreman generikoe-
tan giltzarri dena.

Harreman interesatuez ari denean, Amaiak trukerako balioa ere ai-
patzen du: «*egunerokotasunean espazioa partekatzen dugun pertsona ho-*
rriekin erlazioa dugu, batetik, bizikidetzagatik eta bestetik, haiengandik
zerbait nahi dugunean». Harremanen ulerkerak horrek kapitalismoaren
oinarrian aurkitzen den indibidualismoa eta kontsumismoa (Arruzza,
2016) bultzatzen du gehienbat. Bestalde, Amaiak familian horrelako
erlazioak garatzen direla baieztatzen du, maitasuna aitzaki gisa, Idoiak
hurrengo gaineratzen duelarik «*badirudielako behartua zaudela se-*
nideren bat maitatzera, txarto eramanda ere». Nukleo familiarraren
unecoroko babesean emakumeen eta gizonen arteko botere harremanak
garatzen dira «*familiarteko harreman matxistak aguantatzea, depen-*
dentzia ekonomikoak sortzea...» eta beste behin, familiararen eta ezkon-
tzaren erakundeek agerian uzten dute explotazio eta dominazio harre-

man generikoa egikaritzeko, birsortzeko, eraldatzeko edo mantentzeko duten ahalmena (Esteban, 2011).

Bikote maitasunari dagokionez, Juleneren narratiban normatibitate agerikoa da. Normatibitate hori feminista erradikalek heterosexualitatearen eta monogamiaren inguruan ardaztu dute (Castrillo, 2016) eta mitifikazioaren bidez, mendebaldeko industria kulturalak utopia emozional unibertsal zehatza eraiki dute (Herrera, 2010). Ideologia horren sustatzaileak ditugu Idoiak aipatzen dituen Disney eta pelikula yankeeak; izan ere, horien eraginez, bikotea feminitatearen eta maskulinitatearen arabera estereotipoetan egituratu da. Batetik, «*mutil baten esperoan dagoen printzesa lasaiak gara, sumisak, ondo jantzita doazenak, mutilak dena emango digunaren ideia dugunak...*» eta horrela ez bada, sistemak bestelako bitartekariak aurkituko ditu eredu normatibo horien koordenadetan sartzeko. Bestetik, maskulinitateak «*gizonei ere zer nolakoak izan behar duten esaten diete: indartsuak, penetrazio fuertea egin behar dutenak, iniziatiba daukatena...*».

Bi sexuen identitateen eraketa dikotomiko horretan, emakumearen identitatea «bestearenera» mugatuko litzateke, gizonaren arabera eraikiko litzatekeelarik emakumea (Beauvoir, 1949/1981). Hemen maitasun erromantikoaren *printzipe urdinaren eta printzesaren mitoa* identifika dezakegu, feminitatearen eta maskulinitatearen rol sexual eta estereotipo generikoen arabera mailakatzen baitira gizon eta emakumeak (Herrera, 2010). *Laranja erdiaren mitotik* (Yela García, 2000) ere edaten du zentzu batean, generoak bi zatitan banatzen baititu. Horrenbestez, botereak maitasuna zeharkatzen duen heinean, norbanakoen sozializazio eta generizazioan eragina du, emakumearen dominazio egoerari eutsiz (Esteban, 2011).

Hori gutxi balitz, bizitza osorako proiektu antzera agertzen da bikote harremana Olatzen ustez, Yela García (2000) aipatzen dituen mitoei bidea irekiz: *iraunkortasunaren mitoari eta ezkontzaren edo bizikidetzaren mitoa*. Inoiz bukatuko ez den maitasun pasional hori material bihurtzeko joera dagoela dio Idoiak, diruarekin ere lotzen baitu berak eta Julenek. Hortaz, «*maitasuna gauza materialekin lotzen duzun momentutik, maitasunaren esentzia galtzen ari zara, kapitalismoaren barruan maitasuna bera materiala izatera pasatzen delarik.*»

eta kapitalismoaren joko-zelai horretan, kontsumoaren oinarria berriz agertzen zaigu, Idoiaren arabera, sare sozialen bitartez, San Valentinen bidez... bultzatzen dena.

5.2. Maitasun esperientziak

«Hasieran, uste nuen Disney pelikuletan eta pelikula yankeetan irudikatzen zen maitasuna horrela gauzatzen zela ere errealitatean.»

(Idoia, 26 urte, bikotegabea)

Lau parte-hartzaileen maitasun harremanen bizipenei erreparatzen badiegu, lauren artean puntu komunak aurki ditzakegu, bakoitzaren berezitasunak ere aitortu behar baditugu ere. Orokorrean, protagonistek haien bizitzako momenturen batean maitasuna idealizatu egin dutela aitortu dute; hau da, maitasun hegemonikoan sinistu dute noiz-bait, ereduaren eraikuntzak barneratu dituzte eta maitasun aspirazio ere bihurtu: Idoiak dioen bezala «*hasieran, uste nuen Disney pelikuletan eta pelikula yankeetan irudikatzen zen maitasuna horrela gauzatzen zela ere errealitatean*».

Lehen maitasun esperientzietan, Olatzek, Amaiak eta Julenek gizartearen presioa nabaritu zuten, maitasunarekin edukitako lehen kontak-tua beranduegi izateagatik «*DBH 3. mailara arte ez nintzen inorekin liatu eta presioa ikusten nuen nire inguruan*». Olatzen kasuan, presioa ez ezik, eragina izan zuen unibertsitatera arte maitasun esperientziarik gabe heltzeak, bere lehenengo harremana idealizatzeraz eraman baitzuen, horrek dakarren toxikotasunarekin. Idoiak, bestalde, ikuspuntu sexualago batetik azaltzen du presio hori «*ez nuen lortzen harreman sexualik edukitzea, gure lehenengo harreman sexuala penetrazioa dela kontuan hartuz*».

Gauzak horrela, guztien narratibetan antzematen da harreman toxikoren bat, bakoitzaren maitasun ibilbidearen hasieran batik bat. Olatzek, esaterako, botere harremanak dependentzia egoeran bizi zituen, erlazio guztian zehar «*Hodeik ematen zidanarekin konformatzen nintzen, hori edo ezereza baitzen*». Amaiak, bere aldetik, harreman derri-gortua bizi zuen horrekin «*era guztietako praktika toxikoak jasotzen nituen (...) eta mila aldiz utzi nuen arren, psikologikoki hain manipu-*

latzaillea eta azkarra zen, penagatik eta bera lagunduko nuelakoan, berriaz bueltatzen nintzela berarekin».

Julenek ere maitasunaren bere lehenengo kontaktua *shock* bezala azaltzen du, uste baitzuen berataz barre egiteko helburuarekin egin zuela. Era berean, bere lehenengo harremanean ere nolabaiteko toxikotasuna garatu zutela adierazten du, behintzat komunikazio aldetik. Bukatzeko, Idoiari lehenengo harreman sexuala izan zuenean bere lagun minarekin izan bazen ere, bere harremanaz eta konfiantzaz gehiegi baliatzen zela iruditzen zitzaion. «*Orduan horrela hastea nire bizitza sexual zein afektiboa niretzat jartoa izan zen.*» Horrek guztiak eragina izan du era batean edo bestean protagonisten maitasun ibilbideetan.

Harreman batekin bukatzerako orduan, lauren artean sentimendu eta bizipen ezkorrak gailentzen dira baita ere. Julenek, adibidez, krisi egoeran sartzen dela dio, hasieran inongo aterabiderik aurkitzen ez zaion horretarikoan: «*momentu horretan mundua jausten zitzaidala sentitzen nuen*». Tristura, ezinegona, goragaleak... dira nagusitzen diren sentimenduak. Idoiak ere sentsazio arraroa izan zuen, besterekin bizi izan ez zituen mila esperientzietan zentratu zelarik. Mingarri bezala ageri da, beraz, maitasun harremanen bukaera.

Era berean, haien bikotekideak beste batekin ligatu izan duenean, bien arteko elkarrizketak, eztabaidak eta hausnarketak hasi dituzte. Bikote harremanetik kanpoko erlazioak bikotearen egonkortasunarekin bukatu izan ohi du eta praktikan ondorio batzuk daudela dio Julenek «*pisu bat suposatzen zuelako kudeaketagatik, jelskortasunagatik, zeloen kudeaketagatik, ingurukoek ere ez zutelako ondoegi ulertzen...*». Era esplizitu batean sentimendu horien kausak aipatzen ez diren arren, Vasalloren (2018) *monogamiaren mitoak* eta Yela Garcíaen (2000) *eskusibotasunaren mitoak* eragina dutela ondoriozta dezakegu, bikotearen nukleoa kolokan jartzen baitu.

Lehenengoaren ardatzean, erromantizazioa eta konpromiso sexuala azpimarratzekoak dira, batik bat, bikote harremanaren hierarkizazioarekin batera. Hierarkizazio hori gakoa da, beste harremanen nolakotasuna zehazten duelako, eta beraz, bikote harremana idealizatzeraz garramatza (Vasallo, 2018). Zentzu horretan, *eskusibotasunaren mitoak monogamiaren mitoarekin* batera uler daiteke, jabetza pribatuan eta

egoismoan oinarriturik, pertsona batengatik bakarrik senti daitekeena-
ren sinesmenari erreferentzia egiten diolako (Yela García, 2000).

Olatzi, berriz, bikotekidea izanik, burua blokeatzen zaio ligatzen duenean «*erruduntasun sentsazio handia bizi dut*». Julenek erreduntasun sentsazio horri hurrengo gehitzen dio «*nabaritu nuen Martinen erruduntasuna eta nirea ez zirela berdinak, ni txarto sentitzen nintzela pertsona batekin bi musu soilik emateagatik*». Erruduntasun sentimenduak, edozein emeziok bezala, koordenatu kultural batzuei erantzuten die (Esteban, 2011) eta, hortaz, soziokulturalki eraikitzen dira, espezializazio generikoan oinarriturik (Herrera, 2010). Honekin batera, monogamiak ezartzen duen patriarkatuaren moral bikoitza identifikatu dezakegu kasu honetan, gizonen onartzen baitzaie harreman ez monogamoak aurrera eramatea, zigor moral zein sozialik gabe (Herrera, 2010).

Aipatu bezala, lau narratibetan jasotzen den protagonista bakoitzaren bizipenetan, berezitasunak ere aurki ditzakegu. Horietako bat da, adibidez, sexualitatearen auzia. Bada, guztiek orokorrean harreman heterosexualak izan dituzte. Narratiban harreman homosexualak mahaigaineratzen lehena Julene izan bada ere, ez ditu bizi luzerako edo bikote harreman gisa. Erlazio puntuala izan da eta zalantzak sortu zizkion, «*ez nekielako gustatzen zitzaidan ala ez*». Harreman heterosexualak eduki izana edo harreman homosexualen aurrean nahasketa sentitzea ez da kasualitatea, Yela Garciak (2000) proposatzen duen *heterosexualitatearen mitoaren* barruan kokatu beharra dago. Feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza binarioan ardazturik, bikotekide heterosexuala beste harreman moten aurrean, muin zilegi bezala azaltzen baita (Vasallo, 2018).

5.3. Kontrahegemoniatik maitasuna (des)eraikitzen

«Ezinbestekoa da maitasunaz ari garenean porrotak ere kontuan hartzea, horietatik ikasteko eta mingarria badirudi ere, polita da harreman askatzaile horietan berrestea eta apostu egitea.»

(Julene, 22 urte, bikote gabea)

Gizarte kapitalistaren eta patriarkalaren dominaziorako eta kontrol sozialerako erraminta izateaz harago, maitasuna dimentsio askatzailetik

ere eraikitzen den indar emantzipatzailea da (Esteban, 2011). Horrek (des)eraikitze prozesu bat suposatzen du, bakoitzaren esperientzietatik, inguruaren eraginetatik eta hausnarketetatik pizten dena.

Maitasun erromantikoa zalantzan jartzerako orduan, urteekin irabazitako esperentzia pertsonalak garrantzia izan duela dio Olatzek, horien bitartez lortu baitu maitasunaren ideia «errealago» batera hurbiltzea. Amaia ere ideia horrekin bat dator, «*16 urte dituzunean maitasuna soilik ulertzen duzu bikotekide harreman itxi eta heterosexual bezala*» eta beraz, hasieran maitasunaren idealizazio horretara mugatzen dira. Edozelan ere, praktikan bizitako esperentzia ezkorrek beste harreman eredu motak bilatzera bultzatu dituzte emakume feminista hauek.

Eredu berri horien bilaketan, «*besteen esperientziak, mugimendu feminista edo militantzia esparrua izan dira erlazionatzeko eta bizitzeko beste modu batzuk ezagutzeko gakoa*». Hala ere, horrek hausnarketarako espazio bat ahalbidetzen duen ingurune zehatz bati egiten dio erreferentzia eta zentzu horretan, haien burua zorionekotzat hartzen dute Olatzek eta Idoiak : «*zortea baldin badaukazu deseraikitze prozesua errazagoa suerta dakizuke inguru dezente batean bazaude*». Era berean, Julenek irakurketaren eta formakuntzaren garrantzia azpimarratzen du, teoria feministatik jasotakoa gehienbat.

Hausnarketarako jarrera ere nabaria da lau protagonistengan. Amaiak, esaterako, maitasun formen hausnarketarako beharrez kontziente dela dio, presente eduki beharreko elementu bezala azaltzen baitu: «*garrantzitsua iruditzen zait noizbehinka zalantzan jartzea, beti ez bada ere, denbora guztian geure burua zalantzan jartzea nekagarria delako*». Izan ere, gogoeta horren atzean, lanketa arduratsu eta gogor bat dago, zeinak Amaiaren esanetan energia eta egonkortasun emozionala eskatzen duen.

Lanketa horri aurre egiteko ezinbestekoa da Idoiaren aburuz psikologiatik planteatzen den beharren piramidea kontuan hartzea. «*Maitasunaren puntura heltzeko, zure behar fisiologiko, fisiko eta beste asko asetuta izan behar dituzu. Hortaz, maitasunera heltzeko aurretiazko baldintza batzuk asetuta behar dira*». Zure bizitzako esparru desberdinetan egoera egonkor batea egotea funtsezkoa dela ondorioztatzen du.

Alde horretatik, (des)eraikitze prozesua ezin da era indibidual batean irudikatu; Amaiak dioten bezala «*ez delako zure buruarekin bakarrik egiten duzun gauza bat, baizik eta zure inguruarekin eta harreman praktika hori egikaritzen ari zaren horrekin baita ere.*». Ez da norabide bakarrean gertatzen den zerbait, alegia, ez du norbanakoa soilik aintzat hartzen, ezta bikotea ere, Amaiari jarraiki, harremanak ezin baitira tiraderetan isolaturik itxi. Kolektiboa da eta inguruarekin dago uneoro kontaktuan; hortaz, komunitatearen, eta finean, gizartearen erantzukizuna ere bada harreman kontrahegemonikoei bidea irekitzea, maitasunaz eta intimitateaz harago, marko erlazional komunitarioak eraikitzeko helburuarekin (Esteban, 2011).

Hubileko inguruan, Idoiak eta Olatzek konfiantzazko sare bat edukitzea baldintza garrantzitsutzat hartzen dute, lehenengoaren esanetan «*hasi berri dudan harremanaren inguruan hitz egiteko, feedbacka jasotzeko eta nire iritzi propioa sortzeko.*». Halaber, gizartearen epaiketen eta presioan aurrean, babesgune eta indargune gisa azaltzen dute lagunartea.

Gizartearen presioak erlaxatu behar direla uste du Julenek, lasaitasun horretan hezkuntzak jokatu lukeen papera azpimarratuz. Bide beretik, Idoiak hezkuntza emozionalaren, afektiboaren eta sexualaren eredia guztiz desberdina izan beharko litzatekeela proposatzen du, «*hezkuntzaren bidez sozializatzen baikaituzte emakume eta gizon.*» eta ez dakigulako «*zer sentitzen dugun, zer nahi dugun, nondik datorrigun tristura sentimendua, zergatik...*» Sozializazio generikoaren barruan, heteronormatibitatearen amaiera ere aipatzen du funtsezko baldintza bezala.

Harreman kontrahegemonikoen teoriatik praktikarako saltoa laurak saiatu dira egiten. Egia bada ere, Amaia lauretatik zalantza gehien dituen delat: «*ez dakit zer puntura arte urruntzen diren eredu hegemoniko horretatik.*». Dena den, bere inguruko harremanak elkartasunean eta elkarzaintzan ardatzen saiatzen da, harreman interesatuak ekidite aldera.

Julenek, adibidez, normatiboak ez diren harremanak eduki ditu: «*bikotekidea ez den beste jende batekin liatzerakoan, emakume batekin egiterakoan puntuala izan bada ere...*». Zaintzarako eta hausnarketarako etengabeko joera azpimarratzen du, lehenengoarekin gehienetan ondo moldatu ez den arren. Idoiak, bere aldetik, exigentziarik gabeko

harremanak bizi izan ditu. Bestearen espazioa errespetatzen ikasi du eta hitz egiterakoan pareko egoteak zaintza suposatu du bestearekiko zein harremanarekiko. «*Era berean, gau batean edukitako lige batzuk ere harreman osasuntsuetatik hurbilago kokatu dira*».

Olatzek egun bere bikotekidearekin daukan harremana eredu tradizionaletik gehien urrundu denetarikoa da, «*ez nuke polimaitasunaren izenpean izendatuko baina horretan gabiltza*». Irekia da eta bikoteak ez du zentraltasuna edukitzeko asmorik, batzuetan inertziaz hartzen badu ere. Vasalloren arabera (2018), harreman ez monogamikotzat hartzen diren harremanetan ere bikotea hierarkizatzeko arriskua dago eta joera hori Olatzen harremanean antzeman daiteke. Dena den, hasieratik hitz egin zuten harreman motaren inguruan eta biok bat zetozela ikusita, Olatzek zorionekoa ikusten du bere burua, errazagoa baita horrelako prozesuak martxan jartzea «*kudeaketa batzuetan jaleo bat eta nekagarria den arren*».

Hala ere, maitasun erromantikotik urruntzen den adibiderik argiena lagun artean daukatena da eta Olatzek, esaterako, harreman mota horrekin alderatzen ditu harreman kontrahegemonikoak: «*lagunekin nahiko lasai gaude gutaz gain beste lagun batzuk badituzte*». Beraz, norberaren buruhausteen gaintik, egingarri bezala azaltzen zaizkie hierarkizazioan, eskusibotasunean eta jabetza pribatuan oinarritzen ez diren harremanak.

Gizartean, aldiz, harreman kontrahegemonikoen irudikapena guttiz kontrakoa dela uste dute. Juleneri iruditzen zaio «x» batekin proiektatzen direla harremanak zein orientazio sexuala. Lehenengoari dagokionez, fideltasuna barneratuegia dugula baieztatzen du, «*adarren*» diskurtsoa gailentzen delarik. Bigarrenean, Idoiaren ildo beretik, harreman sexualen falozentrismoa eta penetrazioa salatzen du Julenek «*koittoa bizitzako gauzarik garrantzitsuena izanik, koittoa praktikatu behar duzulako*». *Heterosexualitatearen mitoaren* (Yela García, 2000) eraginez, hortaz, bikotekidea ugalketarako muin zilegi bezala azaltzen da beste harreman moten aurrean, eta kasu honetan zehazki, orientazio sexual anitzen aurrean.

Diskurtso antzekotik, Olatzek gizartea horrelako harremanak onartzeko eta bultzatzeko prestutasunik ez duela ondorioztatzen du. «*Bestelako harremanak garatzen ari garenok esperimendazio fase batean egongo*

bagina bezala irudikatzen gaitu gizarteak». Gaztetasunaren ikuspegia txertatzen du hemen, errebelde izateko fasean egonik, «*frogatzen edo disfrutatzen egongo bagina bezala*» azaltzen dira harreman kontrahegemonikoak, hau da, Idoiaren hitzetan «*hippie*» edo «*feminazi*» gisa; betiere bizitzan noizbait zentratuko direnaren ziurtasunarekin.

Amaiak eta Idoiak, ordea, harreman mota horien oinarrietara jotzen dute. Asko dira «*momentuko desio eta gogo sexual edo afektiboak asetzeko bideratzen*» diren harreman alternatiboak; polimaitasuna, adibidez. Ez dira elkarzaintzan guztiz oinarritzen, eta beraz, Amaiak ez ditu maitasun praktikatzat ez feministatzat hartzen, «*beste pertsona batzuen kontsumoa baino ez dutelako sustatzen*». Kapitalismoaren logiketatik hurbil kokatzen den heinean, «*sistemak ez ditu mehatxu bezala irudikatzen, denbora guztian berregituratzen baita horrelako zirrikituei aurre eginez*». Asimilaziorako arrisku hori Idoiak ere identifikatzen du Dulceida eta bestelako bidez.

Vasallo (2018) eta Wuwei (2018) bat datoz egiten duten polimaitasunaren inguruko irakurketarekin. Bada, polimaitasunak askapen sexualaren aitzakiarekin, norberaren plazer sexual propioa bilatzen du, kontsumorako merkantzia bihurtzen ditugularik besteak (Wuwei, 2018). Bestalde, aterabide indibidual horrek edozein dominazio eta explotazio harreman ezkutatzen du berdintasunaren eta justiziaren etiketapean (Vasallo, 2018).

5.4. Maitasun idealak ere mito

«Zaila iruditzen zait nukleo itxi eta txiki bat hartzea harreman ideal horiek praktikatu ahal izateko. Inguruko guztiak eragina du gurean, eta beraz, ezin ditugu gure harremanak tiradera itxietan sartu.»

(Amaia, 26 urte, bikoteduna)

Orokorrean lau protagonistak ez datoz bat maitasun harreman ideal orokor baten ideiarekin. Juleneren arabera «*maitasun harremanetan hartu-eman baikor zein ezkorrak daude*» eta bakoitzak berea bilatu behar duela uste dute emakume hauek, bakoitzaren baldintzak kontuan hartuz; bada, Idoiak dioten bezala, «*nik nahi dudan hori ez du zertan beste batek eduki nahi duen hori izan*». Hortaz, ez dira ideal bakar

eta finko batez ari, Olatzi jarraiki, «*pertsonaren arabera, egoeraren arabera eta lekuaren arabera, ideal asko egon daitezke.*».

Alde horretatik, bakoitzak bere maitasun harreman ideala duela esan daiteke, erduen artean puntu komunak agertu diren arren. Julenek, adibidez, askatasunaren aldarria egiten du harreman desberdinak aurrera eramateko «*inongo aurreiritzirik gabe*». Olatz ere ezereza batetik sortu den maitasun ereduaren aldekoa da, hausnarketa batetik «*momentu bakoitzean dauden pertsonen eta harremanaren beharretara ahalik eta gehien moldatzen dena*».

Berdintasunaren eta zaintzaren diskurtsoa ere gailendu da lauren artean. Konfiantzazko espazio bat izatea ezinbestekoa dela iruditu zaie, harreman horietan konplizitatea, lasaitasun emozionala, zintzotasuna eta komunikazioa garatzeko giltzarri baita. Anapolek (1997; hemen aipatua: Cerderira, 2012) printzipio horiek ere identifikatzen ditu harreman polimaitaleetan, azkenengo biak aurrebaldintza bezala ikusten badira ere (Klesse, 2006).

Orokortzeko lau protagonisten maitasun eredu ideala sare afektiboetatik hurbilago kokatzen da. Laurak hausnarketarako beharraz jakitun, sare afektiboak harreman-esparrua birpentsatzeko abiapuntu irekiak lirake. Vasallok (2018) adierazten duen moduan sare afektiboen funtsezko oinarria zaintzaren etika da, kapitalismoak aldarrikatzen dituen harreman instrumentalen kontrakoa litzatekeena. Zentzu horretan, norbanakoaren beharrak testuinguru eta baldintza zehatz batzuen barruan kokatzen ditu, norbanakoa sare baten kide eta sare horren erantzule izanik. Hortaz, inguruaren zaintzaren arduradun ere bihurtuko litzateke (Vasallo, 2018).

Edozelan ere, ez dakite noizbait maitasun eredu ideal horretik hurbil egon diren. Idoiak, beste erlazioekin alderatuz, Josurekin edukitako harremanean ikusten du hurbiltasun maila bat eta Olatzek, berriz, egun Aratzekin duen harremanean. Egoera horietan, hausnarketarako prestutasuna azpimarratzen du Olatzek «*gehiegi zoratu gabe, askotan oso nekagarria delako (...) eta batzuetan ez da beharrezkoa*».

Nekagarria dela dio oztopo askorekin egiten duelako topo. Batetik, Olatz eta Julene bat datoz barneratuak dituzten eraikuntzekin, «*eraikuntza horiek sentimendu batzuk sortzen dizkigu eta sentimendu horien*

inguruan hausnartzea garrantzitsua da». Azkenengo horrengan gizartean gailentzen den epaiketak egiteko joerak ere eragina dauka Juleneren ustez. Bestetik, barnertutako kontzeptuen deseraikuntza indibidualean, Idoiak norbanakoen erritmo desberdinak aurkitzen ditu; jasotako hezkuntzaren arabera, «*maila desberdinetan egon zaitezkeelako bestearekiko*», eta beraz, bestearen mugekin topo egiteko arriskua egongo litzateke.

Komunikatzeko ezgaitasuna ere azpimarratzen du Idoiak, askotan «*hitz egin gabe ziurtzat eman ditugulako gauza asko, ulertu barik (...) gauzak (...) oso desberdin ikusten direla alde batetik edo bestetik*». Hor-taz, ondorioztatzen du «*jakintzat ematea besteak ulertuko zaituelakoan akatsa dela*».

Zailtasun horiei aurre egiteko, hezkuntza eta komunikazioan sarkontzea proposatzen dute Julenek eta Idoiak. Hausnarketarako eta lanketarako gaitasun horretan, kolektibotasunetik maitasunaren bestelako ulerkerak luzatzen saiatu behar direla dio Amaiak, «*funtsezkoa baita maitasun praktika kontzienteen inguruko aldarrikapena egitea*» gerora edozein pertsonarekin praktikan jartzeko. Praktika horretan, garrantzitsua da Olatzen arabera, «*helburu hori duenarekin edo horretan lan egiteko prest dagoenarekin egotea*» edota besteen esperientzietan eta hausnarketetan oinarritzea.

Horrenbestez, sare afektiboetatik hurbilago kokatzen diren maitasun eredu idealak egikaritzea era kolektibo batean mito bezala ageri zaigu, gizarte kapitalistan aurkitzen diren explotazio eta dominazio harremanen barruan eginezinak direlako (Herrera, 2010).

5.5. Maitasuna eta feminismoa artikulatzen

«“Pertsonala politikoa da” horretatik, gure bizitza eta gorputzak borroka guztien inguruan ardaztera eraman gaitu, gure harremantzeko moduak ere zalantzan jartzeko giltzarri izan delarik feminismoa.»

(Olatz, 23 urte, bikoteduna)

Hutsune bat antzematen da talde feministen aldetik maitasunaren lanketari dagokionean. Orokorrean ez dute maitasunaren fenomenoak kolektibo bezala gehiegi landu eta mahaigaineratu duten bakoitzean,

deseraikitzeke helburuarekin izan da. Maitasun erromantikoa kolokan jarri dute eta kontrahegemoniatik, askatasunaren aldarria egin dute, maitasunaren alderdi kolektiboari lekua utziz.

Hala ere, guztiak bat datoz feminismoak maitasun hegemonikoa kolokan jartzeko izan duen funtzioarekin, erramintak eskaini baititu eta eskaintzen ari baita. Olatzen jarraiki, «*Pertsonala politikoa da' horretatik, gure bizitza eta gorputzak borroka guztien inguruan ardaztera eramán gaitu, gure harremantzeko moduak ere zalantzan jartzeko giltzarri izan delarik feminismoa*». Zentzu horretan, Julenek dioen bezala, harreman afektibo sexualak agerian utzi ditu; «*bestelako harreman mota batzuk azaleratzen saiatu da eta horrek eramán du maitasun erromantikoa kolokan jartzera*».

Sexuen arteko harreman sexual, afektibo eta sentimentalen aldatketan, borroka feministak zein borroka homosexualak erabakigarriak izan ziren (Rivera, 2005). 60-70eko hamarkadetan zehar egikaritutako iraultza sexualak gorputzen eta sexualitatearen askapenean aldatketak ekarri zituen, baita genero problematikarekin harreman zuzena mantentzen duten instituzio sozialetan, familian eta ezkontzan, alegia (Herrera, 2010). Koiuntura politiko horren barruan kokatzen dira egun mugimendu feministaren barruan aurkitzen ditugun maitasunaren ekarpen esanguratsuenak (Freire, 2013).

Eredu bakar eta hegemonikoaren aurrean, Olatzen aburuz, «*mugimendu feministak beste mila eredu horiei hausnarketarako, esperientziak kontatzeko... espazioa eman die*». Feminismoak zabaltu dituen ideal alternatiboen, tresnen eta egoeren bidez «*bakoitzak bere beharren araberá, berea propioa*» sortu behar duela uste du Idoiak.

Hortaz, maila indibidualago batetik hausnarketarako aldarrikapena egin du feminismoak eta aldarrí horren eragina lau protagonisten maitasun ibilbidean antzeman daiteke. Izan ere, hausnarketa horietatik saiatzen dira maitasun eredu kontrahegemonikoei heltzen, Olatzek iradokitzen duen bezala: «*feminismoak aukera eman dit hausnarketa hori egiteko eta hausnarketa horretatik hasita, bazoaz beste guztia garatzen*». Horrek eramán ditu bestelako oinarrietan ardaizten diren harremanetan sinisterra: «*elkarbabesean eta elkertasunean ardaizten diren ereduak egingarriak direla erakutsi dit militantziako kideekin, talde horrek eragiten duen eremuarekin, beste emakumeekin...*».

Dena den, hausnarketarako giltza ez ezik, lau protagonistengan feminismoaren diskurtoarekin bat datozen bestelako elementuak ere antzeman daitezke, haiek espresuki izendatu ez dituzten arren. Horien artean aurkitzen dira, batik bat, zaintza eta harreman afektibo eta sexualen arteko parekotasuna. Lehenengoa haien harremanen zutabe garrantzitsuenetarikoa dela esan daiteke eta horrek ere eragina dauka harreman afektibo eta sexualei dagokionean; izan ere, biak batera era orekatu batean ulertzen dituzten heinean, ez da erlazioen hierarkiarik gauzaten, ezta gorputzen kontsumismo batean jausten ere.

Kolektiboki feminismoak lan handia egin duen arren, Julene izan ezik, beste hirurek ez dute uste feminismotik soilik eraginda maitasun praktikak bere osotasunean aldatzen direnik. Izan ere, Olatzek adierazi bezala, «*feminismoak gako batzuk zabaltzen baditu ere (...) praktika horiek sistema kapitalista heteropatriarkalaren sostengu dira, eta hortaz, sistema guztiari egin beharko genioke aurre praktika horiek gainditzeko*». Amaiak bere partetik hurrengoa ere gehitzen du: «*feminismoak aldarazi nahi dituen praktikak emakumeen artekoak eta bikote harremanetan zentratzen direnak izanik, bere mugak dituela esango nuke*».

Zuri edo beltz bezala planteatu beharrean, maitasun harremanen aldaketa osotasun batetik proiektatu behar dela diote, hau da, Olatzen hitzak hona ekarriz «*aldaketa modu globalago batean ulertu beharko genuke*». Maitasuna, hortaz, ezin da esparru autonomotzat hartu; harreman sozioekonomiko batzuen barruan kokatzen da eta horien berantolaketa barik harreman kontrahegemonikoen mitifikazioaren inertzian jauziko ginateke (Herrera, 2010).

Maitasun praktiken aldaketa feminismotik harago bestelako borrokekin artikulaturik irudikatzen duten arren, inork ez du feministak ez diren harreman kontrahegemonikorik aurkitu, Idoia eta Amaia izan ezik. Idoiak, erlijioaren esparrura eramane du, mojek jainkoarekiko duten maitasuna aipatu baitu bere narratiban. Amaiak, aldiz, harreman ireki polimaitaleen problematizaziotik abiatuta, haien izaera feminista ukatu du. Julenek, berriz, jakin nahiko luke zeintzuk diren harreman alternatibo ez feminista horiek.

6

Ondorioak

Narratibetan jasotako diskurtsoak aztertu ondoren, feminismitik garatu diren maitasun proposamenek emakume gazteengan izan duten eraginari erreparatuko diot atal honetan gako desberdinen bitartez. Horretarako, bertan identifikatu ditudan ideia nagusiak plazaratuko ditut, diseinu teknikoan zehaztutako aldagaietan ere geldialdia eginez. Bukatzeko, ikerketan zehar aurkitutako mugei tokia utziko diet galdera berriak mahaigaineratuz. Aipatu beharra dago baita, eragin horien nolakotasuna Bilboko auzo desberdinetako emakume feminista gazteetara mugatzen dela.

Lehenengo klabea, lau emakume feministen maitasunaren ideian arazten da. Interesgarriak dira protagonistek fenomenoaren inguruan egiten dituzten hausnarketak, maitasunaren aspektu kontrage-monikotik eraikitzen baituzte: elkarren arteko eta inguruarekiko zaintzatik, zintzotasunetik, konpromisotik, berdintasunetik... Maitasuna sentimendu eta elementu positiboekin lotzen dutela agerikoa da eta ez soilik bikote harremanetan, maitasuna bere zentzurik zabalenean ulertzen dute. Hala ere, maitasunak txanpon beraren bi aldeak erakuts ditzake, sentimendu ezkorrek ere bizi izan dituztelako parte-hartzaileek.

Bigarrenak boterearekin du harremana. Gizartean botereak zuzenean zeharkatzen du maitasuna eta botere hori forma desberdinetan ageri badaiteke ere, batzuei maitatzeko ahalmena esleitzen die eta beste batzuei, aldiz, ez. Ahalmen hori familiaren eta ezkontzaren

(bikotearen) eremuetan aitortzen dela adierazi dute lau emakumeek, hortik kanpo maitasunerako aukerarik egongo ez balitz bezala. Dena den, maitasunaren ideia hori interes materialen inguruan ez ezik, feminitatearen eta maskulinitatearen inguruan ere ardaztu da, dominaziorako tresna gisa. Produktu kultural hegemonikoetatik edaten duela azaldu dute (Disneytik eta pelikula yankeetatik, gehienbat) eta harremanen dimentsioan kokatzen den unetik, norbanakoen sozializazioan funtzio erabakigarria betetzen duela antzeman daiteke narraitibetan.

Hasieran, maitasunaren ideia hegemonikoan kokatzen ziren lau emakumeak. Gizartetik jasotako idealizazio horrek, ahatik, errealitatearen baldintzekin topo egiterakoan, bestelako harreman eredu motak bilatzeko beharra piztu du feministengan. Ikasketa prozesu hori da ikerketako hirugarren klabea; bada, haien maitasun ibilbidean deseraikitze prozesu bat identifikatzen da, bereziki, emakume bezala jasotako sozializazio generikoari dagokionean. Lanketa horretan, feminismoak paper garrantzitsua izan duela onartu dute protagonistek, orotara, talde feministen aldetik maitasunaren lankentan hutsunea badago ere; ez baitute maitasunaren fenomenoaren esplizituan mahaigaineratu.

Feminismoaren ekarpenak, beraz, ikerketaren zutabe moduan ere ageri zaizkigu. Mugimendu feministak harreman afektibo zein sexualak agerian utzi dituen heinean, maitasuna ere problematizatu du. Hausnarketarako aldarria eginez, feminismoak aniztasunetik harreman kontrahegemonikoak planteatzen dituela azaltzen digute lau emakumeek; izan ere, unean uneko behar eta baldintzei erantzunez, bakoitzak maitasun eredu propioa eraikitzen du. Horrenbestez, maitasun eredu ideal anitzak agertu dira.

Maitasun idealak banakotasunetik planteatu dituzten arren, oinarrian aurretik aipatutako zenbait printzipio partekatzen dituzte: zaintzarena, zintzotasunarena eta berdintasunarena, batik bat. Maitasun eredu idealean, hortaz, maila indibiduala eta kolektiboa sustatzen dira, artikulazio hori ereduaren aniztasunarekin batera, ikerketaren laugarren eta bosgarren klabeak izanik. Maila indibidualean norbanakoen hausnarketarako aldarria egin du; maila kolektiboan, berriz, maitasun harremanak kolokan jartzeko eta eraikitzeko erramintak luzatu ditu. Dena den, maitasun idealak diren unetik, maila abstraktuan gelditzen dira eta

gizartean horiek egikaritzeko zenbait zailtasun antzeman dituzte. Oztopo nabarmenenak, sentimenduen kudeaketa eza, komunikazio falta edota norbanako bakoitzaren deseraiketa erritmoak dira, hausnarketa lan horietan maila desberdinetan aurki daitezkeelako norbanakoak, bestearen mugekin topo eginez.

Oztopo horiei aurre egiteko, komunikazioa, hezkuntza afektibosexuala eta besteen esperientzia kontrahegemonikoak giltzarri izan daitezkeela uste dute emakume hauek. Are gehiago, esperientzien bilaketan, lagunen arteko harremana da maitasun harreman kontrahegemonikoak egingarriak direla erakutsi dien bakarrentarikoak, edo behintzat, adibiderik gertuenekoa. Bada, harreman kontrahegemonikoen esparruan, eredugarriak izan daitezkeen horien hutsune bat dagoela sumatu dute; eta are gehiago, feministatzat hartzen ez dituzten maitasun kontrahegemonikoei dagokienean, jainkoarekiko maitasuna edo harreman polimaitale kontsumistak soilik identifikatu baitituzte.

Ezin ahaztu ere, feminismoaren eta beste borroken arteko artikulazioaren garrantzia maitasun praktiken eraldaketetan. Maitasun hegemonikoa gizartearen osotasunetik antolatzen, moldatzen eta birsortzen den momentutik, feminismoak luzatu dizkien erramintetatik harago, maitasun praktika menderatzaileei osotasun batetik aurre egin behar zaienaren aldekoak dira, ikerlanaren seigarren gakoia luzatuz.

Ikerketaren diseinurako finkatutako aldagaiei dagokionez, harremanak ez dira nahiko esanguratsuak izan. Ardatz nagusiek genero problematikaren zentraltasuna eskuratzen lagundu duten arren, sozializaziorako testuinguru antzekoetan kokatzeak narratiben homogeneizazioa ekarri du eta azkenengo hori da ikerketaren zortzigarren gakoia. Beste bi aldagaiek narratibetan eragin xumea izan dute; adinarekin, esaterako, ikusi da maitasunaren inguruko hausnarketak era sakonago batean egin dituztela edota deseraiketa prozesu horretan, urteen poderioz, aurreratuago egon dira. Halaber, egoera sentimentalean, bikotea izanda ligatzearena mamu bezala ikusi dute harremanean ez ezik, harremanean dauden pertsonengan eraginak dituelako: erruduntasun sentimendua, blokeoa, elkarriketak, buruhausteak... Alde horretatik, bikote gabe koen narratibak posizio askeago batetik heltzen diote momentu horri, eta orokorrean, haien egunerokotasunari.

6.1. Ikerketaren mugak eta galdera berriak

Ikerketan feministotik garatu diren maitasun formek emakume gazteengan izan duten eraginaren inguruko zenbait gako eta ekarpen jaso diren arren, badira jorratu gabe geratu diren alderdiak eta badaude ikerketan zehar ireki diren beste bide batzuk. Ikerketan zehar ere zenbait mugekin egin dut topo.

Mugetako bat laginaren homogeneousazioa da. Sozializazio testu-inguru antzekotik datozen emakumeengan zentratu naiz eta hainbeste esparru partekatzeak diskurtsoen homogeneousazioa ekarri du, bakoitzak bere narratiba partziala ehundu duen arren. Horrek etorkizuneko bestelako espazioetan mugitzen diren emakumeengana jotzeko aukera iradoki dit, talde feministetan militatzen ez duten horietan, esaterako, feminismoak planteatzen dituen maitasun kontrahegemonikoen eragina zein den aztertze aldera.

Era berean, narratibetan zaintzak eta hezkuntza emozionalak, afektiboak eta sexualak zentralitatea hartu dute maitasun kontrahegemonikoei dagokionean, lehenengoa funtsezko oinarri bezala eta azkenengoa harreman horiek egikaritzeko estrategia bezala. Zentzu horretan, aurreikusi ez ditudan bi zutabeak etorkizuneko ikerketa-lerro gisa planteatzen ditut maitasun kontrahegemonikoen eraikuntzan garrantzitsua baita bi alderdi horietan sakontzea.

Jabekuntza prozesuena izan da jorratu ez dudana beste alderdietako bat. Ikerketaren hasieran azaldu bezala, maitasunari ikuspuntu emantzipatzaile batetik heltzeko asmoa nion, feministotik garatzen diren maitasun forma kontrahegemoniko horiek emakumeen jabekuntza prozesuen norabidean jartzerik bazuten aztertzeko. Denbora faltagatik eta ikerketak beste eremu batera eramanez ninduelako, alde batera utzi nuen. Hala ere, aurrera begira beste ikerketa-lerro posible gisa proposatzen dut emakumeen jabekuntza prozesuen eta maitasunaren arteko artikulazio hori, maitasun kontrahegemonikoei ekarpen teoriko zein praktikoa interesgarriak egingo dizkiolakoan, eztabaida desberdinak sortuz.

Sexualitatearen auzia ez txertatzeak ere ikerketa mugatzen duela iruditzen zait. Maitasun hegemonikoaren zutabeetako bat *heterosexualitatearen mitoa* izanik, ikerketa hankamotz gelditzen dela uste dut. Feminismoak mahaigainean jartzen duen sexualitatearen problematika

neutralizatzen ari bainaiz era batean. Ikerketaren parte izan diren lau emakume feministek, hala ere, heteronormatibitatea kolokan jarri dute eta alde horretatik, etorkizuneko hainbat iker-galderari ere bidea irekitzen lagundu didate: heteronormatibitatekanpo gelditzen diren maitasun harremanak kontrahegemonikotzat har ditzakegu? Maitasun hegemonikoa birproduzitzen dute? Nola bizi dituzte homosexualek/lesbianek harreman kontrahegemonikoak? Zeintzuk dira sexualitatearen auziak luzatzen dituen gakoak maitasun kontrahegemonikoak erakitzerako orduan?

Honenbestez, ikerketa honekin aukera izan dut planteatutako iker-galdera batzuei erantzuna emateko eta, era berean, ikerketa proiektuak berak galdera berriak proposatzera eraman nau.

Bibliografia

- Arruzza, Cinzia. (2016). «Reflexiones degeneradas: patriarcado y capitalismo», *Marxismo crítico* [On-line], eskuragarri hemen: <https://marxismocritico.com/2016/03/08/reflexiones-degeneradas-patriarcado-y-capitalismo/> [Kontsulta eguna: 2019/03/14].
- Balash, Marcel eta Montenegro, Marisela (2003). «Una propuesta metodológica desde la epistemología de los conocimientos situados: Las producciones narrativas». *Encuentros en Psicología Social*, 1, (44-48).
- Biglia, Barbara (2014). «Avances, dilemas y retos de las epistemologías feministas en la investigación social», Mendia, Irantzu *et al.* *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. (21-45).
- Castañeda, Martha Patricia (2019). «Perspectivas y aportes de la investigación feminista a la emancipación», AA.VV. *Otras formas de (des)aprender. Investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. (19-40).
- Castrillo, María Concepción (2016). *Amor, género y clase social: la experiencia de los adultos jóvenes en la ciudad de Madrid*. Doktore tesia. Madrid: UCM.
- Cedeira Pilão, Antonio eta Goldenberg, Mirian (2012). «Poliamor e monogamia: construíndo diferenças e hierarquias». *Revista Ártemis* [On-line]13, eskuragarri hemen: <http://www.periodicos.ufpb.br/index.php/artemis/article/view/14231/8159> [Kontsulta eguna: 2019/03/24].

- Coria, Clara. (2011). *El amor no es como nos contaron... ni como lo inventamos*. Grupo Planeta (GBS).
- De Beauvoir, Simone (1981). «La enamorada», Simone de Beauvoir. *El segundo sexo* [1949]. Buenos Aires: Siglo XX. (451-479).
- Esteban, Mari Luz. (2011). *Crítica del pensamiento amoroso: Temas contemporáneos*. Edicions Bellaterra.
- Fisher, Helen (2004). *Por qué amamos: naturaleza y química del amor romántico*. Victoria E. Gordo del Rey (itzul.) Taurus.
- Freire, Sandra Elisa de Assis (2013). *Poliamor, uma forma não exclusiva de amar: correlatos valorativos e afetivos*. Doktore tesia. Paraíba: UFPB/CCHL
- Grau, Elena (2014). «Saber que alguien lo escucha. El método de la narrativa en la investigación La verdad de las mujeres. Víctimas del conflicto armado», Mendia, Irantzu *et al.* *Otras formas de (re)conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. (147-160).
- Haraway, Donna (1995). *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinvención de la naturaleza*. Madrid: Cátedra.
- Harding, Sandra (1998). «¿Existe un método feminista?», *Debates en torno a una metodología feminista*, (9-34).
- Herrera, Coral (2010). *La construcción sociocultural del amor romántico*. Madrid: Editorial Fundamentos
- Klesse, Christian (2006). «Polyamory and its “others”: Contesting the terms of non-monogamy». *Sexualities*, 9, 565-583.
- Kollontai, Aleksandra (1976) *Autobiografía de una mujer emancipada* [1926]. Barcelona: Fontamara.
- Mouffe, Chantal (1985). «Hegemonía y alternativas políticas en América Latina», Labastida, Julio (zuz.) *Seminario de Morelia Hegemonía y Alternativas Políticas en América Latina*. Morelia: UNAM. (125-145).
- Pujol, Joan eta Montenegro, Marisela (2013). «Producciones narrativas: una propuesta teórico-práctica para la investigación narrativa», Paulín, Horacio eta Rodigou, Maite (zuz.) *Coloquios de investigación cualitativa: desafíos en la investigación como relación social*. Cordoba: UNC. (15-43).
- Rivera Garretas, María Milagros (2005). *La diferencia sexual en la historia*. Universitat de València.

- Sternberg, Robert J. (1998). *Love is a story: A new theory of relationships*. Oxford: Oxford University.
- Vasallo, Brigitte (2018). *Pensamiento monógamo, terror poliamoroso*. Madrid: Oveja Roja
- Wuwei, Natàlia. (2018). «Rapidez, capitalismo relacional y acumulaciones de afectos», *Estructura difractada* [On-line], eskuragarri hemen: <https://estructuradifractada.com/es/rapidez-capitalismo-relacional-y-acumulaciones-de-afectos/> [Kontsulta eguna: 2019/03/24].
- Yela García, Carlos (2000). *El Amor desde la Psicología Social: ni tan libres, ni tan racionales*. Madrid: Pirámide.

Eranskinak

Diseinu teknikorako gidoia

1. *Maitasun harremanen definizioa eta bizipenen errepasoa*

- Kontaiezazkidazu mesedez orokorrean zure maitasun bizipenak. Lehenengotik hasi eta gaur eguna arte.. Nolakoak izan diren esperientzia horiek, nolako pertsonekin, zer sentitu duzu, nola garatu dira, zenbat denbora iraun dute....?
- Maitasuna bikotekide batekin ulertzen duzu?
- Desberdintasunik antzematzen duzu harreman batetik bestera? Zerk bereizten ditu? Zergatik bukatu ziren?
- Zaintzak zer paper jokatu du harreman horietan?
- Desberdintasunik aurkitzen duzu ligeekin eta bikotekideekin edukitako harremanetan? Zeintzuk? Harreman afektiboek sexuallek baino pisu handiagoa dute zuretzat? Zergatik?
- Zaintzak zer paper jokatu du harreman horietan?
- Tokirik hartzen al du maitasunak zure egunerokotasunean? Zer nolako tokia hartzen du? Eta orokorrean, gizartean, maitasunak zer nolako tokia hartzen du?
- Zer sentimendurekin/emoziorekin lotuko zenuke maitasuna? Etagizartean, zein sentimendurekin/emoziorekin uste duzu lotzen dela?
- Maitasunak zuretzat poztasuna edo osotasuna esan nahi du? Zergatik? Eta gizartean, maitasuna poztasunarekin edo osotasunarekin harremanetan dago? Zergatik?

2. *Maitasun kontrahegemonikoak*

- Noizbait zure harremantzeko formak zalantzak jarri dituzu? Zerk eraman zaitu/zintuen hori egitera?
- Maitasun erromantiko ereduarekin bat ez datorren harremanik izan duzu inoiz? Zein ezaugarri izan dituzte? Zenbat iraun zuten? Zergatik bukatu ziren?
- Maitasun erromantikoan oinarritutako harremanekin alderatuz, zein ezaugarri zuten? Zaintzak zer paper jokatzan zuten harreman horietan?
- Zure ustez, zein baldintza bete beharko lirateke zure bizitzan maitasun erromantikoaren ereduarekin bat ez datozen harreman horiek posible egiteko? Eta gizartean? Gizartean horrelako baldintzarik aurkitzen da? Orokorrean, gizartean zelan irudikatzen dirala uste duzu harreman horiek?

3. *Maitasun eredu idealak*

- Maitasun eredu idealik existitzen al da?
- Nolakoa da zuretzat maitasun ideala? Zein oinarritzko ezaugarri izan behar ditu?
- Deskribatu duzun maitasun eredu ideal horretatik hurbil egon zara inoiz? Zer egin beharko zenuke maitasun ideal hori lotzeko? Zer oztopo aurkitzen duzu maitasun eredu ideal hori praktikan jartzerako orduan? Eta zer estrategia edo tresna identifikatzen dituzu eredu ideal hori garatu ahal izateko?

4. *Feminismoa eta maitasuna*

- Noizbait talde feminista bezala maitasuna jorratu duzue? Zelan? Zein ikuspegitik?
- Zure ustez, feminismoak maitasun erromantikoa kolokan jartzeko erramintak garatu ditu? Eta beste maitasun eredu batzuk garatzerako orduan, feminismoak zer funtzio/ekarpen egin ditu?
- Feminismotik egindako ekarpenek zer nolako eragina izan du zure esperientzia pertsonalean?

-
- Feministotik planteatzen diren maitasun erromantikotik kanpoko erduei ekinez, posiblea al da maitasun praktikak bere osotasunean aldatzea?
 - Feministak ez diren maitasun eredu alternatiborik ezagutzen duzu? Zeintzuk? Nolakoak dira?

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO
ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN



euskal
soziologia eta
zientzia
politikoaren
elkartea



asociación
vasca
de sociología
y ciencia política

UNIBERTSITATEKO ESKULIBURUAK
MANUALES UNIVERSITARIOS

INFORMAZIOA ETA ESKARIAK • INFORMACIÓN Y PEDIDOS

UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua • Servicio Editorial de la UPV/EHU
argitaletxea@ehu.eus • editorial@ehu.eus
1397 Posta Kutxatila - 48080 Bilbo • Apartado 1397 - 48080 Bilbao
Tfn.: 94 601 2227 • www.ehu.eus/argitalpenak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea